


jakin

marxismoa modan egon zan
ezkertiar berriak
euskal-poesia gaur
jainkoa ta materia
marxismoa erlijioaren aurrean



**EUSKAL
GAZTEDIA
KULTURA
BIDEETAN**

SALNEURRIA

urtekoa: 100 pezta.
alea: 25 pezta.
atzerrian: 2 \$.



jakin —26-gna. Arantzazu-n — 1967—

buruzagitza: a. y. zubieta
(órganos rectores: fr. y. zubieta)

zuzendaritza ta zabalkundea:
(dirección y administración)
arantzazu — oñate — gipuzkoa.

**arantzazu'ko frantziskotarren
ardurapean argitaratua.**
(edita: la comunidad franciscana
de arantzazu)

zuzendari: a. kándido zubizarreta
(director: fr. cándido zubizarreta)

argitaratze-eguna:
1967'ko agorraren 30'ean.
(acabóse de imprimir:
el 30—IX—1967).

depósito legal: SS. 323-1964.

EUSKAL GAZTERIA
KULTURA BIDEETAN

JAKIN aldizkariaren xedea euskerari laguntzea da, euskerazko kultura egiten saiatzea.

Zenbaki honetan...

Orain gutxi Rikardo Arregi'k, Euskal-herria'ren egoera aztertuz, honela esaten zuen: "Sozialismoa modan dago". Gaur, Igara'k, erantzuki, honela dio: "Marxismoa modan egon zan". Berriro ere euskaldunok berandu ote gabilitza, ba?

Nortzuk dira eta zer "ezkertiar berriak"? Aurrekoan hasitako azterketari darraikio Rikardo Arregi'k. Aurrekoan azaletik jardun zuen, berak dionez, atarian gelditu zen. Gaur barrura doa, muiñaren bila. Ba al dago, ordea, ezkertiarren muiña adierazberik? Definiziorik ez du ametitzen, esan zuen R. Arregi'k. Hau dala-ta dituzten zenbait funtsezko joeraen berri ematen digu gaurko honetan.

Euskal-poesiaren alorra gehiegi arakatu gabea

daukagu oraindik, deus ez, kasik. Ibon Sarasola —olerkari trebea bera ere— Otsalar, J. Azurmendi ta L. M. Mujikaren poesian barna abiatzen da estudioan, gaurko hontan. Honela amaitzen du JAKIN 24-gn. zenbakian hasitako lana, nahiz “amaitu gabeko lan baten akabantza” dela abixatuaz.

Jainkoa, Izpiritua, Mundua, Zientzia... Gaiak eta prolemak X. Kintanaren luman. Gai guzi haueri buruz argi egin nahiez, ikuspegi zenbait kritikatu eta berea eraikitzen digu. Ikuspegi bat beste zenbaiten aurka.

Zein jokaera du Marxismoak erlijioarekiko? Prolema ez dago xinpletutzerik. Jokaera bi —edo hobeki, jokaera desberdifen seiñale-mota bi— antzeman-uste ditu J. Azurmendi'k Marxismoaren baitan: Erlijioarekiko irikiak eta itxiak. Bitartean, Euskaldun marxistek zein jokaera dute aukeratu? Azurmendi'k jokabide itxiko agerpenak dakarzkigu.

MARXISMOA modan egon zan

rikardo arregi'ri erantzunez

- Marxismoa eta “praxia”.
- Sozialismoa eta burgesia.
- Sozialismoa eta stalinismoa.
- Intelektualekiko istilluak.
- Marxismoaren iragarriak eta ekarriak.

Marxismoa modan omen dago gure artean: hau zion aurtemehin “JAKIN”-en Rikardo Arregi adiskideak. “Zaharrak berri” ote?

Orain dala gutxi bete dira I.'ngo Internazionalaren ehun urteak. Marx'en eta Engels'en “Komunista Agiria” orain dala 119 urte argitaratu zan; eta Karl Marx oraindik bizi balitz, 149 urtetako senton zahar bat izango litzake. Marxismoa, hortaz, gure herriak gauza “berri” tzat gaur hartzea, gure arlotekeriaren neurria da. Marxismoa bete-betean XIX-garren mendeko askakaria da, eta zenbait aldetatik ezaguera klasikoan sar d'iteke. Horregatik, eta batez ere Europa'ri gagozkiolarik, “marxismoa modan egon zan” esan behar da; eta ez “marxismoa modan dago”.

IGARA

Euskal literatura'ri buruz Mitxelena'k egoki ziona, Literatura'tik at ere egoki aipatu beharko ote da? "Hay que mencionar también, para cerrar estas consideraciones, un cierto retraso muy natural, que hace que bastantes obras vascas parezcan compuestas en fecha anterior a la real: Dechepare parece un autor del siglo XV; Axular, un escritor del XVI; la ola romántica se desborda hacia 1880, etc. Modos y modas han llegado tarde y muchas veces se han conservado largo tiempo con rara tenacidad". (Historia de la Literatura Vasca, 19 gn. horr.).

Zer gertatzen da atzerrian? Ez ote da egia marxismoak Euskal Herri'tik at modan dirauela? Hauek dira "JAKIN"-en irakurle askok pozik egingo lutekean galdera. Gertaerak mintza bitez gure orde.

Komunista erresumetan gauza ezaguna da bertako intelektualak, gaztetan marxista izan ondoren, ia danak ezari-ezarian marxismotik urruntzen hasiak dirala: azken hillabeteetan, esate baterako, zarata haundia egin dute Errusia'koek eta Txekoslovakia'koek. (Gero itzuli-ko naiz puntu huntara).

Mendebaldean, berriz, intelektualik ezagunenetatik gehienak, sarritan sozialista diralarik ere, komunista alderditik landa daude (edo egon ziran, hillak diranean): Einstein, Russell, Sartre, Camus, Levi Strauss, Lefebvre, Bachelard, Jaspers, Gurvitch, Koestler, Merleau-Ponty, Aron, Rostand, Teilhard de Chardin, eta abar. Are gehiago: horietatik gehienak marxismoaren beraren aldekoak izan dira bolada batez (eta Komunista Alderdiko lagun ere bai batzutan).

Zergatik hori guzia? Erantzuna erraza bide da. Batetik, marxismoak agindu zituen aldakuntza miragarriak gertatu ez diralako; eta, horien orde, eta marxismoa beti gidari eta nagusi, belzkeria eta hilkintza ikaragarriak gertatu diralako 1917-tik. Eta, bestetik, marxismo ofiziala (eta gehiegitan ofiziala ez dana ere) eskolastika gorri batetik oso bertan egon dalako. Marx'ek berak, alde huntatik, ez ote luke gauzarik asko txartzat hartuko gaurko komunismoan? Baietz dirudi: bere garaieko lehendabiziko marxistak ezagutu zituelarik, hau esan zuen, Hyndman'en tesiak ezagutzean: "Hori baldin bada marxismoa, ni marxista ez naiz".

Dana arbuiatu behar ote da, hortaz, marxismoan? Anti-marxismo amorratu batera erori behar ahal dugu? Ez iñolaz ere.

1967-an marxismoari buruz balantze bat egiteko garaia heldu dala iruditzen zait. Halare ez da oraindik egin ohi, eta are gutxiago gure artean. Alde batetik marxismoaren teologuak daude, su-ta-gar marxismoa nola edo hala osoki onarrarazi lehia bizian; eta bestetik

anti-marxismoaren aintzindariak, su-ta-gar ere bai, marxismoa osoki ukatu eta baztertu nahiz, eta "mac-carthismoa"-an barrena errez abiaturik.

Nork ukatuko, ordea, kapitalismoaren kritikari dagokion aldetik, eta arrisku anitz alde aurretik ikusaraziz, marxismoak argi haundia egin duenik; eta argi hori, orbanik gabea dalako zenbait puntutan, jakintzan sartua dala, beste ezaguera-mota ziur batzuk bezelaxe? Nork ukatuko marxismoak soziologia deritzan zientzia-adarra (eta ez sozialismoaren politika-joera bat soilik) bultzatu duenik?

Kapitalismoa berez gaistoa eta onartu ezina dala gaur gauza nabarmena zaigu, baiña marxismoak txit lagundu du garbi ikusi hortan. Nork ukatuko?

Baiña sozialismoaren alde jokatzeko dugularik, ez dugu nahi-ta-nahiez marxismoaren azalpidea jarraitzen: kapitalismoaren kontrako joera zabal batean sartzen gera. Marx baiño lehenago ba zegoen Europa'n sozialista mugimendu indartsu bat; eta gaur berean ere, orain dala ehun urte baiño sendoago eta hedatuago, sozialista joera zabal bat dago munduan. Sozialismoa eta marxismoa gauza bera dirala uste izatea, marxistek zabalduak lelo bat geuk birresatea litzake. Bakunin eta Jaurès, esate baterako, anarkismoaren eta europar sozial-demokraziaren sortzaileak, ez ziran ez marxista eta ez gutxiagorik ere.

Kapitalismoa arras kondenatuagatik ere, eta arras kondenatzen dugu, marxismoa hotzean hartzen dugu 1967-an; marxismoa gaur, Marx'en liburuetan eta komunismoaren eginetan batera, aztertzeo aukera eta premia ditugulako.

MARXISMOA ETA "PRAXIA"

Kondairari buruz nik neuk ez dut inoiz ere onartzen egiaren ezagugarria Kondairan obratzea eta garaitzea danik. Baikorkeria hortatik urruti nago oso, Kondairar ez baitute egiak, zuzentasunak eta prestutasunak garaitzen, makurrak, gaistakeriak eta ankerkeriak baizik.

Bestetik ere "praxiak" epaitzen badu, garaitu egin behar da, gailen gelditu behar da, nola edo hala. Garaitu nahia, makurreria menderatu beharra, gaifnerako xedei nagusitzen zaie, eta indarkeriaren zirikaldia bortitz billakatzen. Komunismoaren nagusikeriaren iturburu he

men aurki diteke: "garaitzen ez badugu, ez dugu arrazoi-fik". Nola onartuko horrelako irizpiderik?

Baiña marxistek bai. Marxisten ustez "praxia" da egiaren neurria. Alegia: zer eman du Kondairan teoria batek? Horixe da bere egiaren neurria. Kondaira da marxisten azkeneko epaikaria: egia zutenek garaitzen dute, oker zeudenek galtzen. Entzun dezagun Marx: "Pratikan eta obratzean ez bestetan erakutsi behar du gizonak egia duela" (Feuerbach'en kontrako bigarren tesia).

Zer eman du, beraz, marxismoaren "praxiak"? Hauxe da aztertu behar dana. Eta azterketa hau oso zaila da, marxismoaren ekarriak ez baitira danak txuri, eta ez danak beltz.

Zenbait aldetatik komunista gobernua herriaren zer-bitzuko eta zuzpertzaille izan dirala ukatzerik ez dago. Rasputin'en politika-giroa nekez onar zitekean 1917-an Lenin'en kontra; eta gaur berean ere zail da Batista eta Castro'ren artean, Batista aukeratzea. Hau marxista ez geranok ere aisa onartzen dugu; nahiz-eta Kerenski eta Prio Socarras marxistek bezin alaiki ez ahaztu. Osasunaren aldetik, irakaskintzaren aldetik, tekniken aurrerapenaren aldetik, siñiskeria kaltegarrien kontrako lan irmoaren aldetik, eta beste anitz alderditatik, nork uka lezake marxismoak eta komunismoak berak herri batzuk erruz lagundu dituztenik? Nork hauta lezake "United Fruit"-en politika, eta Arbenz'ena arbuia? Nork esan dezake menaz dirudunen irabazi-nahi gorria eta kapitalismoarekiko errespetu osoa gidari hobeak diranik herriaren onerako, marxisten fede sutsu eta mugagabea baiño?

Halaz ere marxismoaren praxia, marxismoaren kontra mintzo da funtsezko zenbait aldetatik; eta hauxe da larriena, praxiak erabaki baitezake gaur 1967-an, praxi horren ikertzapenak hobe esateko, marxismoaren egia edo okerra. Azterketa hau ez da egiten, ordea; eta marxista intelektualek askoz ere gogokoago dute Marx'en eta Engels'en liburu zaharrak ikastea, gaurko eguneko gertakari garrantzak aztertzea baiño (marxista "ofizialek" batez ere).

"Les Principes du Marxisme-Léninisme" deritzan liburuak (U.R.S.S.-en ofiziala) hau dio huni buruz 102-

garren horrialdean: "La pratique est également le critère de la vérité dans les sciences sociales... Il est inadmissible d'opposer l'expérience individuelle, inévitablement étroite et limitée, à l'expérience collective d'une classe, d'un parti. Seule l'activité économique et révolutionnaire des masses peut être le critère de la vérité dans les sciences sociales... Parfois il faut beaucoup de temps pour que la pratique confirme une idée. Mais tôt ou tard l'idée vraie est inévitablement confirmée".

Irizpide hau Marx'i berari ezar dakioko: Marx gizon aparta eta jakintsu ikaragarria izanik ere, bere garaieko gizona izan zan; eta bere teoriak gaurko egifên araberà neurtu behar dira. Hau egifêz, bestalde, "praxia"-ren irizpidea jarraitzen dugu. "Praxi" hori aztertuko dut beraz artikuluan; eta ezin izango dute marxistek gure jokatubidea arbuia.

SOZIALISMOA ETA BURGESIA

Marx'en ustez sozialista erreboluzioa industriako herrietan geratuko zan lehendabizi. Kapitalismoaren kontradizioek eta barne-dialektikak ekarriko dute sozialismoa, zion Marx'ek. Sozialismoa ez dute ekarriko, beraz, ez gizon batzuen nahiak, ez filosofo baten ideiak, eta ez erreboluziolariak berek. Sozialismoa kapitalismoaren industria oinarriek, eta burgesiaren eta langilliarren arteko burrukak ekarriko dute. Sozialismoa etor dedin, ekonomia-molde berezi bat behar da aurrenik: burgesiari dagokiona, industria. Sozialismoa hortatik jaioko da, eta nahi-ta-nahiez jaioko. Kapitalismoari eutsi dakiokela pentsatzea, atzerakoiek uste duten bezela, "idealismo" hutsa da (ideiak esan beharko genuke, marxisten adierazkizuna itzultzeko); sozialismoa Kondairak baitakar, guk nahi ala guk nahi ez, produzio-moldeak eta infrastrukturak aldatu ala. Sozialismoa kapitalismoaren seme da, eta kapitalismoa industriarena. Sozialismoa industriari darraikio, industriaren atzetik dator. Erresumarik interesgarrienak sozialismoa ekartzeko, beraz, industria duten erresumak dira. "Alemania aldera itzuliko dira arreta guziaz komunistak", zion Marx'ek, sozialismoa lehendabizikorik Alemania'n lortuko zala sinistuta (Alemania'n ekonomia-molde burges hori ba zegoelako).

Marx'ek ez zuen aipatzen ez Errusia, ez Txina eta ez Kuba. Hau pentsatzea herejia hutsa zekioketan.

Bost tokitan sortu da ordea marxista erresuma bat, kanpotik indarrean jarria izan gabe: Errusia'n, Yugoslavia'n, Txina'n, VietNam'en eta Kuba'n. Herri horietan burgesia eta industria ahulak ziran erreboluzioa gertatu zanean: feudalismotik, beraz, zuzenean sozialismora igaro dira (aitonagandik billobagana, hitz batez, aitarik gabe), Marx'en iragarpen guzien kontra. Lenin'ek, Tito'k, Mao Tse Tung'ek, Ho Chi Minh'ek eta Castro'k nekazarietan lortu dute beren indarra, ez lan-tegiko langilleetan. Marxismoa nekazariiek garaitarazi dute gaur arte; eta desegin dan klasea ez da burgesia izan, feudalismoa baizik.

Hain zuzen ere, industria zuten herrietan kaltegarri gertatu bide da komunismoa. Txekoslovakia'n hau gauza ezaguna da (irakur, esate baterako, "Esprit"-ek argitaratu dituen K.A.-ren Txostenak, 1966). Jendea, gazte jendea batez ere, guztia hotz eta uzkur dago; eta marxismoarekiko konfiantzarik eta gogorik batere ez dago. Alemania'n, bigarrenekorik, jendeak milloika egin zuen iges mendebalde aldera; eta hori geldiarazteko, Ulbricht'ek "Berlin'go Murrua" eraiki zuen. "Burgesek" murru bat eraikiko balute jendeak aldegiten ez uzteko, entzungarriak izango lirake entzutekoak! (Eta mereziak, zailtzarrik ez). Berlin'go Murrua hor dago, ordea, komunistek eraikia. Eta halere, Ekialdeko Alemania da Europa guzian jendez gutxitzen ari dan erresuma bakarra.

Jendetza-aldaira hauek ez dira Alemania'n soilki gertatu. 1962-an, esate baterako, Mao-Tse Tung'en jauzietako bat gaizki gertatu zalarik, 100.000 txinatarrek iges egin zuten Hong Kong'era; eta igesaldia-ri tenk egiteko, Mao'k igesegilleak tirokatzeko agindua eman zuen. Liskarren ondorioz hil-kintza larriak gertatu ziran Canton'en eta beste hiritan, eta igesaldia gelditu egin zan. "Kultura Erreboluzioa" hasi zan ezkerotik, Hong Kong'erako jendearen igesa berriz gehitu da.

Ipar Viet Nam'dik hegoaldera, era berean, nahiz Ho Chi Minh'en aipua oso haundia izan Viet Nam guzian, eta Saigon'go gobernu arras gorrotatua eta usteldua, millaka igaro dira hegoalderuntz vi- namdarrek, budistak eta kristauak batez ere.

Fenomenu bera ikusi zan Karelia'n (lehen Finlandia izana) gerra bukatzean; eta ia finlandiarrik gehien-gehienek Finlandia "burges" era jo zuten.

Hau guzia kontutan ez hartzea, itsukerian erortzea izango litzake. Jendeketa gaitz horiek ez dira "burgesak", ez aisa mogitzeko modukoak, eta ez sozialismoaren aurkakoak. Zergatik egin, beraz? Hong

Kong'etik 100.000 lagunek datorren hillabeteetan aldegingo balute, eta Txina'n geldituko balira, zer esango luteke komunistek, eta bidez esana, Hong Kong'eko politika-egoeraz? Ez ote luteke pentsatuko nik gaur beste jendetza-aldaire horietaz, hein batean bederen, uste dudana berbera?

Hori dala-ta, ba dirudi komunismoaren kakoa ez dala kapitalismoaren zahartzea eta zarrakatzea (mendebaldeko erresumetan eta U.S.A.-n komunismoaren etorkizuna guztiz beltza da, gero eta beltzagoa hain zuzen), herrien industria-behar hertsia baizik. Tesi hau, noski, ez da nik asmatua: oso zabaldua da. Komunismoa da industriaren aita, eta ez industria komunismoarena. Gauzatasunaren aldeetik, beraz, industriaren beharrak dirudi giltzarria; eta ustetasunaren aldetik, politika-erakunde gogor baten nahi zindoak, eta ez Kondairaren berarekin eboluzio hutsak. Marx'ek iragarri zuen erreboluzio-bidea eta kondairan mamitu dana, oso desberdifikak dira. Marx guztiz nahastu zan huntan.

SOZIALISMOA ETA STALINISMOA

Politikari buruz teoria ezaguna du Marx'ek: gizonak ez dute beren buruz agintzen, beren klaseko interesak, jakifaren gainean ala oharkabean, zaintzen baizik. Klaseen arteko burrukak bortxatzen ditu bai agintariak eta bai Kondaira: Kennedy'k, esate baterako, ezin zezakean bere buruz ia ezer erabaki, bere xixtemaren jopia baitzan. Gizon soil batek kondaira egin dezakeala pentsatzea, "ideiakeria" omen da. (Bidenabar aitortuko dut nik "ideiakeria" hortan sifisten dudala osotara). Rikardo Arregi'k berak hauxe idatzi zuen berriki Johnson'i buruz: "Beste artikulu batean esan genduen ez zegoela, idealismoan erori gabe, kritika guztia pertsona bati egitea, au guztiaren ajoladun balitz bezela, xistimaren preso zela esaten genduen eta". (Zeruko Argia, 1967-X-15).

Aipa dezagun U.R.S.S.-eko "Principes du Marxisme Léninisme" dalakoa, 172-garren horrialdean: "L'activité des dirigeants constitue donc une nécessité objective. De là, l'illusion que les chefs, les personnalités marquantes, sont les créateurs de l'histoire. Leur activité est à la surface des événements. Elle est plus apparente, plus visible, frappe davantage l'attention. Se bornant à cette apparence, les idéologues bourgeois s'attachent à démontrer que les grands hommes "créent" tous les événements".

Bego. Eta nere galdera hauda: nola ulertzen da stalinismoa?

Stalin xistema horren jopu eta preso zan, ala ez? Ala Johnson "preso" da, kapitalismoa kondenatu nahi dugulako; eta Stalin ez, komunismoa kondenatu nahi ez dugulako?

Stalin'ek egiazki agintzen bazuen, eta errua berea bazan, Kondairea Stalin'ek egin zuen, eta ez Komunista Alderdiak. Hau "ideiakera" litzake, eta marxista batek ezin dezake hau aintzakotzat har.

Mao-zaleek ongi sumatu dute hau. Eta 1963-IX-13 an hunela mintzo zan Txina'ko K.A.: "En la lucha contra el oportunismo de todo tipo, contra los enemigos del leninismo, los trotskistas, zinovievistas, bujarinistas, y demás agentes de la burguesía, Stalin defendió y desarrolló el marxismo-leninismo. Con sus obras teóricas, literatura inmortal del marxismo-leninismo, Stalin hizo un aporte imborrable al movimiento comunista internacional". (Ikus "Sobre el Problema de Stalin", Pekin, 1963. Eta aurrerago: "Sería beneficioso que los errores de Stalin... solo de orden secundario"... Txinatar komunistek ez dute Stalin'en jokabidea kondenatu nahi; eta berek esaten digute argi eta garbi zergatik: "¿No equivale esto a decir (que Stalin fue un déspota feudal) que la experiencia que el gran Partido Comunista de la Unión Soviética y el pueblo soviético ofrecieron durante 30 años a todos los pueblos del mundo, no es la experiencia de la dictadura del proletariado, sino la experiencia acumulada bajo el dominio de un "déspota" feudal?" Koa hortan datza, eta Mao'k zuzenki ikusi du ondorioen iturri gerta ditekela.

Stalin, hortara, maozaleen iritziz, Komunista Alderdiaren izenean jokatu zuen, gehienik bederen. Stalin xistemaren "preso" zan, eta zentzugabekeria litzake Stalin kondenatzea. Stalin kondenatzea, marxismo-leninismoa kondenatzea litzake. Egia ote da, ordea, 1917-ko erreboluziolaririk haundienak, eta ia danak (%88 goiko maillan) traidore hutsak gerta'u ziralak? Zer zan, hortara, Komunista Alderdiaren ustelkeria ikaragarri hori? Nola sifis ditekete sozialismoa eta N.K.V.D. zalakoa alkarren eusle diranik? Ez alderdiak eta ez sobietiko herriak ez zuten hau sifisten; eta XX-garren Biltzar Nagusiaren gertaerak hau erakutsi zuen: Nikita Khrushchef miretsia izan zan bapatean, bai U.R.S.S.-en eta bai atzerrian. Khrushchef'ek, marxismo ortodosotik txit urrundik, egia salatu zuen eta Stalin errudun nagusi aurkeztu. Aitorketa hunen ondorioak ez dira oraindik ongi neurtu.

"Principes du Marxisme-Léninisme" liburuak akats larri hauek aipatzen ditu (177-gn. horr.): "C'est ainsi qu'apparurent des phénomènes qui n'ont absolument rien de commun avec le marxisme-léninisme et le socialisme en tant que système social: mépris des prin-

cipes démocratiques dans la solution de plusieurs problèmes politiques importants, violations graves de la légalité socialiste, répression à l'encontre des Soviétiques honnêtes, nomination à des postes responsables de personnes tout à fait incapables et fermées aux idéaux du parti, hais qui avaient su gagner la confiance à force de flatteries et d'obséquiosité". Nola ulertuko izugarrikeria horiek? Demokraziaren helburuen mespretxua, sozialista legetasunaren zapalketa larriak, sobietiko prestuen kontrako zapaera, eta abar. Eta danak ixillik Stalin'en errurik gabe? Danak koldar, zurikerian hobe, presiorik gabe, eta mundu guzian? Mundu guzian, bai; hori ez baitzan U.R.S.S.-en bakarrik gertatu. Louis Aragon idazleak, esate baterako, berriz argitaratu nahi du "Les Communistes" liburua. (Aragon, jakina danez, Fraitzia'ko K.A.-ko Buruzagitzako laguna da). Zer egin beharko du, esan duenez? Gaurko jokeraren erara jartzeko, kapitulu osoak berritzea erabaki du; Aragon idazlea, Fraitzia'n egon arren, stalinismo hutsean baitzegoen orduan (gaur brexnevismoan dagoen bezela). Bere olerki zahar batzuk, gaur mirakuilluz "ahaztuak", faragarri gertatzen dira: nekezago esan diteke losentxa itsusiagorik gizon baten gorantzan. Aragon'en maillako gizon bat horrelako nabar-menkeritan aurkitzea penagarria da.

Liburuak, beraz, Fraitzia'n bertan, eta edonun, Komunista Alderdiaren aginduen erabera idazten ziran, eta idazten dira.

Batzuk saiatu ziran ezker aldetik Stalin kritikatzin: trotskistak. Baiña zer esango trotskistei buruz, hauen kontrako herra osoak azterkizuna argiago jartzen duela baizik? Stalin'en atzaparrek urrun hil zituen Trotski, Nin, eta beste anitz. Eta gaur hori arras bukatu dala esaten bazaigu, ez da egia: "La Voie Communiste" (trotskizalea) eta "L'Humanité" (komunista) zabaltzen dituztenak, behin baiño gehiagotan gertatu dira tiroka Fraitzia'n azken urte hauetan.

Eta Mao Tse Tung'ez, zer esango? Orain dala oso gutxi idatzi du Mosku'ko "Pravda"-k, Txina'ko erregeek berek ez zutela aspaldian errespetu itsuagorik eskatzen herriaren partetik, orain Mao'k eskatzen duena baiño. Txina eta U.R.S.S. ongi ezagutzen dituztenek diotenez, Mao'ren aldeko "gurtza" askoz ere larriagoa da, Stalin'en ohoretan ifioiz egin zana baiño.

Ba dirudi, beraz, marxismoak berak dakarrela nagusikeria-giro hori; eta harritzekoa ez da, marxismoa integrismoa eta erlijioa dalako. Mao'ren liburu gorria guztiz da kristauen Ebanjelioa.

Atzera bihurtuz, beraz: zertan dira desberdin, nagusikeriari eta ankerkeriari dagokienez Stalin eta Genghis Khan? Khruschef'ek

berak aitortu zigun: "Stalin Ivan IV Ikaragarriaren tankerako basanagusi bat izan da", "Errusia'ko Kondaira guzian barrena, diktadorerik haundiena", eta abar, eta abar. Ez ote da gauza agiria, beraz, marxismoak ez duela norkerien problema zipitzik aldatu, eta Stalin tiranoen lerrokada luzean sartu behar dala, "norkeriaren gurtza" eta gañerako aitzekiak asmatu beharrik gabe? Ez ote da gauza agiria Beria eta Torquemada gizon berbera zirala?

Eta nere galdera hau da: Stalin xixtemaren mandatari eta jopuzan? Ala ez zan? Nor da "idealista": marxistak a la gu?

Askatasun "burgesa" ukatzean (eta askatasun burgesa egiazko askatasuna ez dala ez dut nik behin ere ukatuko!), eskuak libre uzten zaizkie Beria eta Jezzoff guziei. Legeak gehiegikeriak frenatu beharrean, azkartu egiten ditu U.R.S.S.-en eta Txina'n, eta "Langilleriaren Diktadura dala-ta, stalinismoa sortzen da, eta derriorez sortu nere ustez: pertsonarik baliotsuenak gailendu beharrean, kol-darrenak eta oportunistenak nagusitzen dira. Erreboluziolarien ondoren, funtzionarioak datoz. Sozialismoari teknokrazia nagusitzen zaio, eta gizonen eskubideei teknikakeria. Nola dei liteke hori sozialismoa? Marx'en joera ikusita, Bakunin'ek orain dala 100 urte igarri zuen hau guzia; eta esaten omen zuen, iseka modura: "Marx, alemana eta judua dan ezkerro, diktadore eta larderiakoia da leporaiño". Anarkisten eta komunisten arteko hartu-emanak ez dira geroztik larregi goxatu...

INTELEKTUALEKIKO ISTILLUAK

Komunista Alderdiek oso gogoko dituzte intelektualak agintera artean; baiñan agintera ezkeroztik, hautsi egiten dute intelektuallekiko alkarrizketa giro legun hura; eta Alderdiaren aginduetara txintxo-txintxo jartzen ez danak, bereak eta asto beltzarenak ikusten ditu.

Luzeegia izango litzake komunista erresuma guzietan gertatu dana xeheki aztertzea. Aski izan bekizkigu azken gertakari batzuk.

Azken bolada huntan bi komunista erresumatan ikusi ditugu intelektualak politika-egoeraren kontra altxaturik: U.R.S.S.-en eta Txekoslovakia'n.

Bidezkoa ote litzake Mendebaldeko intelektualak aurrera-zaletzat hartzea, eta Ekialdekoak atzerakoitzat? Hauek eta haiek egiaren billa ari diranik, zergatik aldeztu aurretik ukatuko? Ekiai-

déko intelektualen lekukotasunak, hortara, balio handia du; batez ere, erresuma horietan prentsa propagandaren menpeko eta zerbitzari dagoelako.

U.R.S.S.-en zer gertatzen dan ez dakigu oso ondo. Alde bategatik Soljenitsine'ren arazoa izan da; eta, jakin ditekenez, Soljenitsine'ren alde dago intelektual asko. Nor da Alexander Soljenitsine, eta zer dio? Bere liburu batek ezagutarazi zigun: "Ivan Desimovitch'en egun bat". Liburuan Soljenitsine'k Stalin'en garaieko Siberia'ko kanpo batean egiten zan bizimodu izugarria azaltzen digu. Khrustchev'en garaiean argitara zan Mosku'n.

U.R.S.S.-eko Idazle-Bilkura aurtengo Maiatzean bildu zanean, Soljenitsine'k gutun agiri bat bidali zuen, zentsuraren gehiegikeriak eta intelektualen kontrako "eraman ezinezko zampaketa" salatuz. Nahiz 60 idazlek gutun agiri hura Biltzarrean irakur zedin eskatu, izkribu bat izenpetuz, Biltzarrak ez zuen irakurri. Baifa "Le Monde"-k gutuna lortu zuen, eta Maiatzaren 31-an oso osoan eman zuen argitara. Fazismoaren menpean ezagutu diran nagusikeria guziak gaur ere U.R.S.S.-en gertatzen dirala ezagutarazi zuen Soljenitsine'k. Hunek hogeiturtetan zehar idatzitako eta bildutako paperak poliziak kendu egin dizkiola salatu zuen, bere liburuak argitaratzeko baimenik lortzen ez zuela, zentsurak behin eta berriz aldatzen zituela bere idazkiak; eta U.R.S.S.-eko Idazleen Alkartasuna ez dagoela idazleen zerbitzuki, itsu-itsuan Komunista Alderdiaren esanetara baizik. Eta esakuntza huntara biltzen zuen bere salaketa: "Gure literaturako atalik onenak moztuta eta lardazkatuta dator argitara".

Zer esango Siniavsky eta Daniel'en hauziaz, 1966-ean mundu guzian ezagutua? Hamairu urte lehenagotik hilla zan Stalin. Bi idazleen kontrako pairakizunak erabaki ziranean (7 eta 5 urte bortxazko lanetan), Komunista Alderdia 49 urte ezkeroztik zegoen U.R.S.S.-en jaun eta jabe. Nola sifis ditekete bi idazle horien alegiazko ipuifiek eta olerkiek dana ankaz gora bota dezaketarik? Nondik nora da marxista bi gizon xoilli bildur ero ori. izatea? Nondik nora da marxista ideia hutsi buruzko ikara hori? Jokabide horren karkoa ez ote da marxista ideologia bat? Ustelduta dauden erresuma "burgesean", dana dala, hori baiño milla aldiz gehiago idatz eta egin dezateke marxistek, Kondai-

rak lagundurik gaiñera; eta burges erresumak ez dira hargatik dardaritzen...

Evgenia Ginzburg'en "Txorabioa" liburuak zarata haundia atera du aurtengo udaberrian. Baiñan ez da liburu hau ere U.R.S.S.-en argitaratu: izkribuaren erdia gordeka U.R.S.S.-etik aterata (Siniavsky'k eta Daniel'ek egin zuten bezelaxe), Milan'en agertu da aurtien errusieraz, eta laister beste hizkuntzatarara itzuli. Liburuaren bigarren atala galdu egin da muga ixilka igarotzerakoan; baiña Evgenia Ginzburg'en lekukotasunak, erdizka baizik ez ezagaturik ere, balio eskerga du; idazleak ez baitu bere marxismo-leninismo-zaletasuna ez ukatzen eta ez madarikatzen: "Zenbateraino errezagoa eta garbiagoa izango zan guzia neretzako, Gestapo'ren presondegi batean egokitu banintz". Evgenia Ginzburg'ek N.K.V.D.-ren eta Stalin'en kanpo hotz batean 18 urte igaro zituen. Bigarren Siniavsky-Daniel'en hauzi baten bezperan ote gaude?

1967-ko Dagonillan beste "arazo" bat hasi zan Andrei Voznesenski'rekin (1933-an sortua). Voznesenski eta Evtuxenko (hau ere 1933-an jaioa) bide dira belaun berriaren olerkaririk haundienak. Evtuxenko'k autokritika baten bidez bere burua salbatu bazuen berriki, eta ez guztiz, Voznesenski'k beste jokatibide gogorrago bat hartu du, eta ez du ezertaz damurik agertu nahi. Eta hortara gutun agiri bat bidali zuen "Pravda"-ra. Hunek, beste askotan bezela, ez zion gutuna argitaratu. Eta Voznesenski'k, ixilpean, "Le Monde"-ra iritxarazi zuen (ikus 1967-VIII-11-koa). Zer dala-ta? Voznesenski'k New York'era joan behar zuen joan dan Garagarrillan, eta azkeneko momentuan irtetzeko baimena ukatu egin zitzaion. Zer egin zuen U.R.S.S.-eko Idazleen Alkartasunak? Voznesenski'ren alde jokatatu beharrean, Alkartasuneko 14 lagunkidek, Komunista Alderdiaren agindua beteaz, atzera egiteko eta amor emateko eskatu zioten Voznesenski'ri. K.A. bildur da olerkari gaztearekin, zeren atzerritik ibillaldi luze bat egin zuenean, marxismoarekiko "epelsko" agertu baitzan, eta guziaz liberalegi eta zaballegi agintarien ustez. Sartre'ri eta Russell'i ez zaie oraindik horrelakorik egin. Gertatuko balitzaie, zer esango luteke orain gauza hauei buruz ixiltzen diran horietxek? Beste pekatu larri bat: Voznesenski'k Soljenitsine'ren alde jokatu du... Gauzak ez dira hortan gelditu. Geroztik ukatu egin diote agintariek igarobidea, bai Bulgaria'ra joateko eta bai Londres'ko Olerka-

rien Biltzarrera joateko. Evtuxenko'k eta Akhmadulina'k (hau gazteago, 1937-an sortu baita), beren igarobideak galdu dituzte era berean, eta ezin dira aspaldi huntan mogitu.

Ilya Ehrenburk aurten hil baiño lehentxeago, zer gertatu zitzaion Xokholov'ekin? Ehrenburg, beti oso zuhurki mintzaturik ere, aiheruz begiratzen zuten K. Alderdikoek, "liberal"-tzat jota.

Zer gertatu da, azkenik, 1967-ko Urtarrillaren 22-an, preso altxatutako zazpi intelektualekin? Iñork ez daki. Atzerritar albistariak ez dituzte izenak berak lortu. Vladimir Bukovski, Vadim Delauney eta Evgene Kuxev aipatzen dira; eta besteak Vladimir Dobrovolski. Ezin egia jakin: ez dira ezagutzen ez izenak eta ez hobenak. Irakurleak ongi daki nun gertatu izan diran horrelakoak. Nork eman ditu iñoiz ontzat?

Egoera nahasiago dago beharbada Txekoslovakia'n.

"Literarni Novini" intelektual aldizkarian jende-aldaketa osoa gertatu-berria da joan dan Iraillan; eta K. Alderdiak bere eskuetan, eta hestu loturik, hartu du Txekoslovakia'ko idazleen kasetak, lehengo intelektual guziak kanpora bota ondoren. Azkeneko Biltzar Nagusian agertu danez, Praga'ko gobernuak ka-tramilla larria du hortan, eta nola edo hala moztu egin nahi du. Budapest'eko Petofi-taldeak oso oroitzapen txarrak utzi ditu.

Dagoen istilluaren beste frogakari bat eman du "Sunday Times" aldizkariak Iraillaren 3-an, Txekoslovakia'ko 183 intelektualen gutun agiria argitaratuaz. Karel Kapek'en hitzak aipatuz, intelektualak hau diote: "Terrorista-agin-aritza guziek alde zuzenetik "inteligentsia"-ren kontra jotzen dute, eta izpirituak eskuratzeko erabiltzen dituzte bere zapalbideak". Ehun eta larogei-ta-hiru intelektualek argi eta garbi diotenez, ez dira sozialismoaren kontra; baiña bai erresumak egindako terrorismoaren kontra, hau ez baita Marx'ek aipatzen zuen "askatasunaren erreibua".

Oso aipatua izan da ere azkeneko asteetan Jan Benes intelektualaren kontrako hauzia. Hau sobera ez luzatzeko aipatu egingo dut soilik.

Baiña denetan ezagunena, beharbada, Ladislao Mnacko'ren arazoa da. Mnacko, Txekoslovakia'ko idazlerik haundienetakoa bat, juduen alde agertu zuen Israel eta Ejipto'ren arteko gudua gertatzean, eta ez arabitarren alde; eta hau, jakifia, bere gobernuaren kontra. Aurrerago jota, Tel Aviv'era joan zuen; eta han

juduen alde mintzatu zan goratik. Praga'ko erantzuna ez zan luzatu: Mnacko'k txekotar naziotasuna galdu du, eta K. Alderditik botiaia izan da. Hori hasteko, atzera itzuli ez baita oraino.

Zer zion, ordea, Mnacko'k? Ezin zuela genozidio bat onartu, Praga'ko gobernuak "genozidio baten alde jokatu zuela", eta ezin zala ixildu. Baiña bere irizpidea garbitzeko hau erantsi zuen Viet Nam'i buruz: "Viet-Nam'en genozidioaren kontra nago ere; eta, komunista naizenez, ezifia zait ixiltzea... Txekoslovakia'ko iskilluak, ba dakit, Israel'en kontra erabilli dira, baiña egokiago izango ziran Viet Nam'en Israel'en baiño. Eta Txekoslovakia'ri buruz hau esan zuen: "Burokrazia-xixtemak du denen errua, dena makurrarazten baitu". Eta bere abotsa Txekoslovakia'n bertan entzunarazten saiatzeko proposatu zitzaionean, hau erantzun zuen idazleak: "Ez, hori ezifia dalako. Beste batzuk hortatik saiatu dira, baiña zentsurak dana ito du. Gai hau "tabu" dan ezker, horretxek erakusten du ondo Txekoslovakia'ko demokraziatzea oraingoz alegiazkoa dala".

Zalaparta haundia atera du ere Ludvik Vaculik nobelari gazteak. Vaculik'ek, hotzean komunista gobernuaren ekintza osoa ukatu du, eta hau esan du: "hogei urte hauetan ez da gure herrian gizatar problema bakar bat ere zuzendu". Eta sozialismoaren alde agertu ondoren, Txekoslovakia'ko erresuma sozialista deitu ezin ditekeala erantsi du.

Eta ezin hemen segi: ez guke bukatuko.

Yugoslavia'n, idekiena izanik ere, ba dute aurtan Mihailov'en arazoa (lehen Djilas'ena izan zuten bezela).

Eta Ekialdeko Alemania'n Arnold Zweig'en arazoa dago aurtan. Arnold Zweig, berriz ere, ez da atzerakoi feudal bat, eta ez gutxiagorik ere: Lenin Saria du, Nobel Sariaz gain. Dena arriskatuz Ulbricht'en gobernuaren kontra hitzegin du joan dan udaran: "Hobe da hiltzea, erbi bat bezela bizitzea baiño... Zer egin ote dizaidakete? Ez naute ez hilko, eta ez gartzelara eramango, begirunea galduko bailuteke hori egingo balute"... Zweig'ek juduen kontrako herra salatu du bere agintariengan, eta guztiz agertu da Israel'en alde (Fraintzia'n Sartre bezelaxe, bestalde). Arnold Zweig'ek, noski, Alemania'tik mogitzeko aukera galdu du.

Eta abar, eta abar.

Komunista erresumetan intelektualik gehienak, beraz, sozialismoa onarturik ere, erresumaren moldea arbuizaten dutela

ukatu nahi izatea, fanatismoa eta itsukeria litzake; bestela dala jakiteko kasetak irakurtzea besterik ez baita behar! Marxismoa eta komunismoa ateka gaisto batean daude, eta ez modan.

Rikardo Arregi'ren iritzia, hortara ("ideiologiaren barruan ere askatasun aundiagoa" sortu dala esaten digunean), oso harrigarria zait; zeren-eta Stalin'en astakeriak, basakeriak eta neurririk gabeko hilkintzak urruti badaude ere, komunista alderdien diktadura eta ezpain-hestukeria lehen bezin gogor da-goela nabarmen baitirudi.

MARXISMOAREN IRAGARRIAK ETA EKARRIAK.

Nun gelditu da Erresumaren desegitea: "erresuma desegin beharrik ez dago: itzaldu egiten da", zion Engels'ek. Zenbat menderen buruan? Oraingoz ez baita itzaltze horren aztarnarik nabaitzen, Yugo-slabia'n ezik.

Produzioko ondasunen jabeagoa ezdeustatuz, era berean, Kondaira-Aurrea atzean uzten da, marxisten ustez, eta Giza-Kondaira hasten da. Mundu zaharrari, Mundu Berria nagusitzen zaio; eta gizon zaharrari, berebat, Gizon Berria. Gaurko gizon alienatu, eskas eta zirtzillaren orde, gizon fibro, bete eta eskuzabal bat sortzen da. Lenin'ek eta Mao'k gauza bera diote. Berrogei-ta-hamar urte igarota, zer diote soziologolariek? Ez dute, nik dakidanez, horrelakorik iragarri.

Nazioen arteko istilluak, burges naziokeriari omen dagozkio. Sozialismoa etorri ezkerero, nazioen arteko etsaigoak bukatu egingo dira, eta naziokeriari internaziotasunak jarraituko dio. Egia ote da iragarpen hau? Muga-arazoak garbitu ahal dira marxista gobernuen artean? Zer gertatu da Prusia'n, Silesia'n, Besarabia'n, Mazedonia'n, Mongolia'n, Turkestan'en, aspaldiko istillu iturri zahar batzuk aipatzekotan? Guztiz bestaldera: nazio arazoak tinko daude nun nahi.

Erljioa alienazio hutsa omen da, eta bildurraren frutua. Sozialismoarekin batera arrazointasuna dator, eta huni erlijioen akabera dagokio: erlijioa burges zanpatzearekin batera "itzaltzen" da. Egia ote da hau, berriz ere? Albistariek ez diote hau, eta kristau liburuak gure artean baiño aisago saltzen bide dira U.R.S.S.-en. Erljio-kezka ez bide da batere itzaldtu; aitzitik, epelago bide da fedea Mendebaldeko erresumetan, U.R.S.S.-en baiño.

Iragarriak eta ekarriak, beraz, horren desberdiñak diran ezkerero, bidezkoa izango litzake marxismoari buruz hotzean jokatzea, eta

absolutukeriak alde batera uztea. Esate baterako, ezin diteke gaur esan marxismoarekin ongi ezkontzen dana, ongi dala; eta gaizki ezkontzen dana, gaizki dala. Iragarrien eta ekarrien arteko gorabehera haundia ezaguturik, marxismoari buruzko sinismena apaldu egin behar da. Bestela itsukerian egon nahi dugula erakutsiko genuke, eta ez gaitula adimenak gidatzen, bihotzak edo tema batek baizik.

Ez dut uste, beraz, eta hau Rikardo Anregi'ren kontra diot, "euskaltasuna ta marxismoa bat egingo balute, ez legoke zer esanik; baiña ez da honela gertatzen" esan ditekeanik. Hori marxista batek esan dezake, baiña nik neuk ez dut esaten, eta ez esango. Dogmakoi guziek beti jo izan dute bide hortatik; "hau gure absolutuen kontra dator, beraz txarra da". Integrismo hortan Stalin izan da eredurik garbiena. Einstein'en Errelatibitatea, esate baterako, "burgesa" irudituta zitaion, eta debekatu egin zuen. Bide beretik ez ote dira hortik batzuk ari, oihuka, euskera "burgesa" zaien ta?

MARXISMOA

Ez da inoiz izan absolutu bat; eta gaur askoz gutxiago 1850-ean baiño. Iritzien eta jokabideen neurritzat marxismoa hartzea, eragabea iruditzen zait arrunt. Euskaltasuna eta marxismoa ezkondu beharrik ez dago, euskaltasuna eta anarkismoa edo ta euskaltasuna eta freudismoa ezkontzeko beharrik ez dagoen bezelaxe. Horiek marxisten kezkek dira, ez besteonak. Kristautasuna eta euskaltasuna batera bildu nahia klerikalismoa baldin bada, zergatik ez da marxista klerikalismoa euskaltasuna eta marxismoa marxismoaren moldean sartu nahi izatea?

Munduaren Kondaira, marxistek besterik esanagatik ere, ez da klase-burruka hutsaren kondaira hutsa. Klaseak ba daude, bai; baiña kulturak ere ba daude, sexoa ere da bago, biologia ere ba dago, geografia ere ba dago, pertsonen heriotza eta bizi nahia ba daude, eta

etniak ere bai. Hauek guziak batera biltzerik ez dago. Mundua hori baiño zaillagoa da, ulertu eziña gaur gaurkoz. Denok dugu egia-egarria; eta egarri legor hori dugulako hain zuzen arbuizaten ditugu marxismoaren absolutukeria, xinplekeria eta sasi azalpen batzuk. Munduaren eta Kondairaren kakoa osorik daude gaur beltz eta illun gure aurrean.

Ni bederen, marxismoari buruz, marxista-ondokoa naiz, post-marxista osotara, eta ezin nindeke besterik izan. Aitortzeaz ez naiz lotsatzen. Eta ez dut, bestalde, nere burua marxismoaren arabera ikusten: marxismoaren problematika bera arrotz zait. Gizonaren kakoa ez da, nere ustez, ez marxismoa, eta ez marxismoaren problematika bera. Marxismoa, funtsean, alienazio hutsa iruditzen zait.

Rikardo'ren ondorioak, hortaz, ez ditut inñolaz ere onartzen. "Sozialista politika batean —dio gure adiskideak— ezin ditezke nazioa ta gaiñontzekoak lehenbizi jarri; ta gero sozialismoari dei egiteak hori defenditzeko, sentidurik ez du. Klasearen batasunaren barruan egin behar dira planteamentu horiek". Batzuk erantzun hau emango lioteke Rikardo'ri: "naziotar politika batean, ezin ditezke klasea ta gaiñontzekoak lehendabizi jarri; eta gero abertzaletasunari dei egiteak hori defenditzeko, sentidurik ez du. Nazioaren batasunaren barruan egin behar dira planteamentu horiek". Guztiz oker emana? Ez horren oker, nik uste.

NAZIOA

Ez da absolutu bat, baiñan erresuma ere ez. Norberaren hizkuntza ez da absolutu bat, baiña besleena ere ez. Burgesia internazionala da; eta sozialismoak internazionala izan behar du: dudarik ez. Baiña hortatik ez dator nazioa eta pertsona erresuma baten menpeko jartzea, are gutxiago atzerritar alderdi baten menpean jartzea; sozialismoa gizonen eta nazioen zerbitzuko eta begiramentu osoan jarri behar baita. Sozialismoa ez baita egiten herrien kontra, herrien alde baizik.

Marxismoaren indarra bere mesianismotik dator: zientifiko ez-baïña zientziaren aurkakoa dalako eta dan neurrian du indarra. Luzea izanik ere oso-osoa aipatu nahi ditut Mircea Eliade soziologilari famatuaren hitzak, hondakifirik ez dutelako: "Quant au communisme marxiste, on n'a pas manqué de mettre en relief ses structures escathologiques et millénaristes. Nous avons remarqué naguère que Marx avait repris un des grands mythes escathologiques du monde asiano-méditerranéen, à savoir: le rôle rédempteur du Juste (de nos jours le prolétariat), dont les souffrances sont appelées à changer le statut ontologique du monde. En effet, la société sans classes de Marx et la disparition conséquente des tensions historiques trouvent leur plus exact précédent dans le Mythe de l'Age d'Or qui, suivant des traditions multiples, caractérise le commencement de la fin de l'Histoire. Marx a enrichi ce mythe vénérable de toute une idéologie messianique judéo-chrétienne... Il est même significatif que Marx reprend à son compte l'espoir escathologique judéo-chrétien d'une fin absolue de l'Histoire; il se sépare en cela des autres philosophes historicistes (par exemple Croce, ou Ortega y Gasset), pour qui les tensions de l'Histoire sont consubstantielles à la condition humaine et, partant, ne peuvent jamais être complètement abolies" (Aspects du Mythe, 222-223).

Iritzi berekoa da Gurvich soziologilaria: "Enfin, la dernière difficulté que présente à nos yeux la conceptualisation marxiste des classes sociales est constituée par sa liaison avec une doctrine utopique, eschatologique si j'ose dire, concernant le rôle du prolétariat. On fait de celui-ci le sauveur de l'humanité; on lui donne des forces quasi miraculeuses, mystiques, capables d'opérer la transmutation définitive de la société. Or il est bien possible de reconnaître que le passage du type actuel de la société à un autre est lié à l'action révolutionnaire du prolétariat, et même à l'élimination complète par celui-ci de la classe capitaliste. Mais il ne s'en suivrait nullement que la position du prolétariat soit exceptionnelle, qu'elle doive conduire à fonder une société industrielle sans classe et à résoudre tous les problèmes que posent sur la vie sociale et individuelle (par exemple, celui de "l'aliénation"...)" (La Vocation Actuelle de la Sociologie, 366 gn. horrialdean).

Hauxe da egia, nere ustez. Stalin apezgai izan zan. Gure arteko marxistarik kupidagabeenak eta gogorrenak Apaiztegian egonak dira. Savonarola piztuko balitz, marxista izango litzake segurki! Hortan

datza marxistekin alkarraitzeko zailtasun guzizkoa. Marxista bat ez da zientzia-gizon hotz bat: eskuarki apostolu fededun bat da. Apostolu guziak bezela errespetagarri, hau bai. Baiñan aurretik, eta beti apostolu sutsu.

Nere lerro hauek gure arteko alkarriketan argi pittin bat ekar-tzen balio izan badute, aski zait neri.

oharra

JAKIN, 25-gn. zenbakian, 8-gn. horrialdean, 5-6 lerrotan, honela idatzi genuen: "Giza-askatasun honen **aurka** negok,...". Intxausti'k oharrarazi gaitu —eta guk oroen ezaugarri jarri nahi dugu— oker idatzia dagoela eta behar duela izan: "Giza-askatasun honen **alde** negok...".

Barka hutsegitea.

II. ezkertiar berriak

(JARRAIPENA)

Artikulu honen aurrekoan azaletik ibilli naiz. Barrurairiño sartu gabe, atarian gelditu naiz. Ala ere, premiazkoa nuen han esanda-koak adieraztea. Azaletik muifera joan nadin, ataria utzi ta barrura sartu.

XIX'gn. gizaldian asten dira ezkertiar jendeak politikagintzan izaten, zentzu moderno batean entenditzen dugunez. Liberalak lehen-dabizi, gure beltzak, eta gero sozialistak. Hauek, jaio ezkerotik, batasunaren billa ibilli izan oi dira beti. Erdietsi bezin laister austeko. Apurtuta gelditu ta bereala batasunaren alde lanean asteko. Lehen nazio-artekoan Marx'en lagunak eta Bakhounine'nak ziran sozialis-moaren batasuna zailla egin zutenak. Gero, sozialista ta komunisten arteko etsaigoa sortu zen. Alemania'n, sozialdemokratak izan ziran espartakisten —komunisten— erreboluzioa zapaltzen lagundu zute-nak. Ala ere, herrikoi frenteak dirala-ta, elkartuko dira berriro sozialista guztiak faszismoarekin burruka egiteko. Gerla ostein, gerla otza jaiotakoan, sozialdemokratak izan ziran, eta dira oraindik zenbait alderdietan, komunisten etsai amorratuena. Gerla otzaren bukaerak etsaigo honen laztasunaren bukaera ekarri behar zuela zi-rudien. Frantzia'n bakarrik dirudi asia dela laztasun honen le-guntzea.

Gerla otzaren bukaeraz, Stalin'en garaiaren bukaerak, munduko Herri aundiena den Txina'ren sozialistatzeak, Fidel Castro'ren errebo-luzioak, sozialismoari, benetakoari, soifneko berriak ekarri dizkio eta, askotan, soifnekoarekin batera, gorputz berria.

Ainbeste era, jokabide ta joera diferenteekin sozialismoaren batasuna gero ta eldugaitzagoa ageri da. Egia esan, aurrena, batasuna medio dela, ta ez xede, esan behar litzake. Sozialismoaren, langilleen, menperatuen, langille klasearen batasunak, zertarako den galdetzen bada bakarrik du esan-nahi bat delako batasun honek. Sozialismoaren historiari begirada labur bat ematea nahikoa da batasunaren desirkundea bere baitan zenbaiteraifio den itsasia ikusteko. Izan ere, beste batean esaten nuanez, langille ta menperatuen batasuna ez da guztia sozialismoa jasotzeko; guztia ez bada ere, ordea, derri-gorrezkoa da. Kondizio hori gabe ez dute funtsik ere balio gaifiontzeko ahalegifiak Herri bat sozialistatzerakoan.

Ezkerra, politikan, sozialismotik pasatzen da. Sozialismoa, ordea, eskuin-ezker muturrak dituen soroa da. Soro hortan, bertakoa denez, ezker berria zer lekuan arkitzen den erabaki behar da. Hortarako, lehendabizi, sozialismoa nazio-artean zertan dagoen aztertuko da. Hori egiteko premiazkoa delako, nazio-arteko politika ta sozialismoaren egoera azalduko dira.

Mintzamoldearen aldetik itzen esan-nahia zerbaiz zeazteko, sozialismoaz mintzatzen naizenean itz honen esan-nahiean sozialdemokrazia ez dutela sartzten aitortu behar dut. Sozialismoa esaterakoan sozialdemokrazia aitatu nahi dutenean, apropos jakin eraziko dut.

XISTIMATIK KANPORA

Berez, mundu guztian gerta ditekena da ezkertiar berrien ernatzea ta indartzea. Mendabaleko Herri aurreratuetan bakarrik du, ordea, gertaera honek politikagintzarako izaera sendo bat, esan-nahi berezi bat. Irugarren munduko Herrietan, erreboluzioa, gauza zailla bederik ere, posible bezela ikusten da, ta ez da bide egokiagorik ikusten kapital menderakorraren, imperialismoaren, gosearen eta justizik ezaren kateak desegiteko bide azkarragorik. Mendabaleko Herri aurreratu ta industriatuetan besterik da, ordea. Hauetan, soziologilariak diotenez, oso integratuta dagoen gizartean arkitzen gera. Integratuak, hau da, xistiman erabat sartuak.

Xistima kapitalismo berria da. Mendabaleko Europa'n eta Ipar Ameriketa'n kapitalismo hori da jaun eta jabe. Ta langilleek gizarte honen barruan egiten dute burruka. Xistimarik ez dute ukatzen. Ba diteke, itzez, xistima hori kondenatzea,

politikagintzan ez ordea. Bere estratejia, bere jokabidea xistimaren barruan ahalik eta gehiena bereganatzeko egia dago, baiñan ifiola ere ez xistima hori desegiaz berria jasotzeko. Ta hori da erreboluziogintza: gizarte xistima bat desegin nahi izatea bere ordez berri bat jasotzeko. Gizarte bateko xistima zerrari deitzen zaio: gizarte osatzen duten gizonen artu-emanak antolatzeke moduei. Era guztietako artu-emanak noski, baiñan batez ere gizartearekikoak: ekonomia, agintea, legeak, morala etab.

Ezkertiar berriak xistimaren etsai amorratuak dira. Ezkertiar berriarentzat hori da lehendabiziko kondizioa bere izatearentzat: xistimatik kapoan izatea. Horregatik, hauek ez dira beifere izango xistimaren ezkerria edo muturreko ezkerria, beti xistimaren ertzean egongo dira, kanpoan izango.

Batzuek, ordea, xistimatik kanpora atera ta hortan geldituko dira, kondentzen dutenaren ordean beste zerbait jasotzeko asmorik gabe. Hauek ukatze utsean, ezean daude. "Beatnik" delakoak dira esaten ari naizen adibiderik onenetakoa. Xistimaren aurka daudelako ukatzen dute hau, ta hori, besterik ez bada ere, zerbait egitea ba da. Ala ere, xistima ukatzeaz gainera, burruka egiten ez dutelako ez dira kaltegarriak xistimarentzat. Jakifia, hau ezin diteke absolutuan esan, baiñan erlatibotasunaren muga zabaletan sartu diteke.

Beatnik hauek ba dute ezkertiar berriekin, integratu nahi eza hori, xistima kondentatu nahi hori. Ezkertiar berriak, ordea, politikagintzan sartzen dira ta beren eza egitazkoa da, ezezkoa beste gizarte baten asmoari ematen zaion baiezkoari beste arpegi agerikoa delako.

Itxaropenaren aldekoak dira ezkertiar berriak. Ez dutelako etsi. Oraindikan, gizarte berria ta justizia posible dirala uste dutelako. Besteak, ordea, ezarrita dagoen xistima gizonarentzat kaltegarria ta gizatasunik gabekoa dela uste baldin badute ere, ba dirudi beste batera irixteko itxaropena galdu dutela ta iges egin nahiean dabiltzala. Eskapuan. Ezkertiar berriak, berriz, zerbait berria proposatu nahiean dabiltz. Oraindik ez dute ezer asko konkreturik eman, horregatik da ain zailla hauetaz mintzatzea. Hauen asmoen eta jokabideen neurria nazio-arteko politikaren eta sozialismoaren egoitzak emango digu.

NAZIO-ARTEKO POLITIKA TA SOZIALISMOAREN EGOITZA

Aurreko artikuluan esan nuen bezela, ezker berria Herri ba-koitzaren giroan ikusten da, bestela ez dago ez definitzerik politikologiaren aldetik errealidade hau. Ala ere, sozialismoak jaiotzatik du nazio-artekotasunaren deia ta bokazioa, ta naziokeria mundu guztiko langille guztien arteko batasunaren kontrako pekatu-rik aundienetako bezela azaltzen da. Ezin ukatu dezaket batasun hori gaur egunean zatituta, erdibituta ta zaurituta arkitzen danik, baiñan hori sozialismoaren izaeraren kontra dijoa. Beñere baiño argiago ikusten da gaur egunean, gizonak gizarte gizontiar bat jaso nahi izatezkerotan, munduaren etorkizuna sozialismoarena dela, gehienak diotenez, baiñan sozialismoaren batasuna ta nazio-artekotasuna ere beñere baiño illunago ta nahastuagoak azaltzen dira.

Sobietikoen Batasuna, Errusia'n 1917'gn. urrillean egindako erreboluzioaren ondorenean izaten asi zen ezkeroztik, nazio-arteko sozialismoarentzat egon-ezin berriak eta garratzak sortu ziran. Lehenago ere, Europa'ko gerla nagusiaren bezperetan, 1914'gn., azaldu zen bere gordintasun guztian nazio-artekotasunarentzat lehendabiziko azterketa garratza. Orduko sozialisten buruzagiak gerla hori kapitalisten gerla zela zioten, eta horregatikan gerla hortan langille guztiak galdu besterik ez zutela. Jakiña danez, Marx eta Engels'en 1848'gn. egindako "Komunisten Agiriak" zabaldu zituen ain ezagunak diran itz hauek: "Mundu guztiko proletarioak batu zaitezte". Batasunean bere indarra eta ugaritasunean bere botherea gerlan sartzeko asmoetan zebiltzan estadu guztietan langilleak huelga jenerala egin ezker eta ejerzituaren deia ukatu ezker, estadu hoietako buruzagi kapitalistak gerla egiteko modurik gabe geldituko zirala uste zuten. Baiñan gauzak ez ziran honela gertatuko. Ta, hortarako, arrazoi asko izan ziran. Hoi-en artean, azkeneko momentuan naziotasunaren indarra na-

zio-artekotasunerena baiño aundiagoa izan zela. Frantzesak alemanen mesfidantza zutela, etab.

Orduan, ordea, ez zen oraindik munduan estadu sozialistarik. 1917'gna. ezkeroztik izango da bat: Sobietikoen Batasuna. Sozialismoa ez da izango ia asmo bat bakarrik, nunbait egiten asitako zerbait baizik. Ba da sozialismoaren adibide konkretu bat: sobietikoa. 1945'gn. gerla ondorenean adibide ta modelo hoiek gehiago izango dira: Errumania, Bulgaria, Polonia, etab. Geroxoago, Txina, Ipar Vietnam, Ipar Korea, etab. Azkenik, Cuba.

Txina'rekin sortutako eztabaida ta arazoen aurretik, errealdade honek, Sobietikoen Batasunaren sozialismoa jasotzeak, kondizionatuko du munduan zear sozialismoaren hedatzea ta higitze guztia. Lenin ill bezin laister asarretuko dira Stalin eta Trotsky. Lehendabizikoak, estraiña Sobietikoen Batasunean sendotu behar dela erreboluzioa esango du, ta, gero, erreboluzio hori sendotutakoan, beste estaduetara esportatu (nolabait esateagatik). Trotsky, berriz, "etengabeko erreboluzioaren" defenditzaille amorratua zen. Honek ez zuen uste *lehendabizi* nunbaiten erreboluzioa sendotu behar zanik *gero* beste alderdietan pizteko. Biak batera egitea posible zela uste zuen eta, aukera egiterakoan, nazio-artekotasuna aukeratzeko prest zegoen. Stalin gelditu zen Sobietikoen Batasunaren agintari ta nazio-arteko komunismoaren buruzagi. Trotsky'k ere eratu zuen nazio-arteko bat bere usteak defenditu ta zabaltzeko; ez zuen, ordea, indar askorik artu ta ertzeko errealdade batean biurtu zen sozialismoaren barruan.

Ez dago orain Stalin'en ustea, ta egitea, aztertzerik, premiazkoa zen edo ez erabakitzerik. Ukatu ezin ditekena da, ordea, sustraiean, muiñean, arrazoi zuelaren hypothesisean ere ordu ezkeroztik Errusia'ren, edo Sobietikoen Batasunaren, interesak nazio-arteko sozialismoaren gaindik izan dirala beti. Ta Stalin ill arren eta, ofizialki gutxienean, bere garaiak kondenatuak izan arren, gaur egunean ere beste horrenbeste gertatzen ote den edo inpresioa dago. Ba dirudi munduko sozialismo guztia Sobieti-

koen Batasunaren intereseetara menperatuta dagoela. Gertaera ta krisi berri bakoitzak sospetxa hau indartsuagoa biurtzen du. Ez noa orain sobietikoak beste era batera jokatu lezateken edo ez aztertzer, frogatua dagoen bezela, zenbait sozialisten iritzi sendoa agertzera baizik. Ta, ain da nagusia zabaldua dagoen irizian, ezkertiar berrien giroa behar bezela aditu ahal izateko izendatu gabe ezin ditekela utzi, aitatu dut uste hau.

Ba da marxismoan beste bi muturren arteko dialektika bat: alabeharra ta nahikortasuna, determinismoa ta boluntarismoa. Sozialismoak zientifikoa behar du izan. Naturalezaren legeak, ekonomiaarenak, gizartearenak, historiarenak eta politikarenak ezaguturik bakarrik jokatu lezake. Hortikan determinismoan erortzeko arriskua azaltzen da, naturaleza makina bat balitz bezela jokatzeko arriskua. Orduan, erreboluzioa asteko, lehendabizi "kondizio ojetibuak" gertatzea eskatzen da, ta, jakiña, hauek oso osoan ez dira gertatzen. Horregatik, joera honek frenuaren papeira egiten du, gauzak bere gisara gertatzen dirala uste izateko joera duelako. Batez ere, erabat burokratizatutako komunista partiduetan gertatzen da. Joera hau jarraitu izan balitz, erreboluzio gehienak ez ziran errealdade biziak biurtu izango. Jakiña da Cuba'ko partidu komunistak, ortodoxoak, Batista'ren garaietan Fidel Castro abenturista bezela artu zuela, ta, horregatik kondernatu zutela, erreboluziorako kondizioak betetzen ez ziralako, tiroka asi zelako.

Besteak, berriz, nahi izateari nagusitasun aundiagoa ematen diote alabeharrari baiño. Hauek erreboluziogilleak eta besteak erreboluziolariak direla esan diteke. Hauek sinpati gehiago jasotzen dute besteak baiño. Hauen arriskua kondizionamendua ahaztea ta baztertzea da.

Partidu komunista ortodoxoak —sobietikozaleak— alabeharraren menpeago daude nahi izatearenean baiño. Hauen aldrebe-sean, ezkertiar berriak nahi izatearen zalegoak bezela azaltzen dira. Nahi izatearen eta eten-gabeko erreboluzioaren zalegoak.

Hau esaterakoan, ez dut esan nahi errealdadearen beste arpegia ikusten ez dutenik eta hortaz konturatzen ez diranik, ala ere, bigarren arpegi hontarako dutela joera adierazi besterik ez dut egin nahi.

ERREBOLUZIOA POSIBLE AL DA?

Hau mendabaleko Herri aurreratuetan sozialista jatorrak egiten duten galdera da.

Erreboluzioak xistemaren eta ezarritako moldeen sustraitikan egindako aldaketa gogorra ta erabatekoa esan nahi du. Mixeria agerian dagoen alderdietan, justiziaren premia ta errebolatu beharra bereala jaiio ditekete. Angi ikusten da, irugarren munduko erdi azitako Herrietan erreboluzioa eta sozialismoa derrigorrezkoak dirala, ez baida beste biderik azaltzen herrialde hoietako arazoak zuzendu eta konpontzeko.

Gure gizarteetan aldrebes da. Menperatutakoei, langilleei, ez zaie azaltzen, besterik gabe ta bereala, bere prolemak konpontzeko ta bere gizatasuna osatzeko sozialismoa biderik egokiena bezela. Sozialdemokraziakoak izan dira langillea, gizarte berria jaso dezaken bakarra, neokapitalista gizartearekin bat egin dutena. Errenten banaketa, partizipazioko sindikalismoa etab. izan dira jokabide honen izenak. Konsumuaren gizartean omen gera.

Sozialismoa erdi azitako Herriak bere atzerapenetik ateratzeko modurik egokiena dela, gehienak dioten gauza da. Izan ere, sozialismoa ekonomiaren aldetik atzeratuta zeuden Herri batzuetan bakarrik asi da jasotzen. Gaiñera, Stalin'en garaiak ezkeroztik, sozialismoa egiteko moduaren adibide bezela Sobietikoen Batasuna jartzen zuten komunistak.

Irugarren munduan, mixeria ain aundia danez, sozialismoa, burua erne duen batentzat, derrigorrezkoa dirudi. Azitako ta erabat industariatutako Herrietan, berriz, derrigorrezkoa baiño gehiago, gizatasunaren aldetik egin liteken aukera bakarra bezela ageri da. Behar bada, mendabaleko gizona salbatzeko posibilitade bakarra sozialismoa dela, ta hau izateratzeko benetako erreboluzio bat nahi ta nahiezkoa dela, diote ezkertiar berriak. Erreboluzioa, ots, lehendabizikoz xistima ta moldeak

kondenatzea, hauen ertzean, hauetatik kanpoan gelditzea, haiek lesegiñaz beste berri batzuek osatzeko.

Baifian zer sozialismo ta zer erreboluzio?

BERRITSUKETA

1917'gn. gertatutako erreboluzioaren ondorenean sozialisten dibisioa jaiotakoan, sozialdemokratak erreformagintzaren bidea artu zuten eta komunistak erreboluziogintzarena.

Ordu ezkeroztik, komunista partiduak izan dira bere programa erreboluzioarena bezela agertu dutenak. Mendabaleko Herri industriatu ta aurreratuetan demokraziaren era parlamentuarena ta partiduekikoena da. Elezioak izaten dira, diputaduak etab. Faszismoaren kontra burrukan zebiltzanean eta 1945'gn. ondorenean erreboluziorako garairik onenak izan ziran. Garai hoiek kenduta, ustekabeen ere, eletoralismoan erortzeko arrisku bat dago. Politikaren bizitza honelako Herrietan elezioen menpean dago. Gehiena inporta dana zera da: ea botu gehiago irabazten diran, ea alkatea edo diputadua gurea izango den-edo. Horrelako preokupazioak partidu baten bizitza ta arnasa erabat menderatzen badute, eletoralismoan erori dela esan oi da. Ta zenbait partidu komunista indartsuei hori gertatu zaie. Hori edo antzeko zerbait.

Eletoralismoa indartsua bada partidu batean, honek koiunturaren politika egiteko joera izango du. Koiunturaren politika, hau da, epe motzeko politika. Ta orduan diborzio bat eguneratuko da esaten eta egiten danaren artean. Itzez erreboluziogillea, egitez erreformazalea. Azken xedea bezela erreboluzioa egongo da, baifian botuak irabaztea derrigorrezkoa den ezkerero, gizon normalak eta patxaruak bezela azaltzeko gogoa izango da.

Ala ere, horrelako joerak, asmoak eta, askotan, desirkunde illunak, indartsuak baldin badira ere, ez dut uste esan ditekunik erreboluziogintza utzi dutenik komunista partiduak. Ezta gutxiago ere. Baifian arriskua ezin diteke ukatu eta errealdade honek ala moduzko giro desegoki bat sortuarazten du. Horregatik nion berritsuketa, oso zailla delako berritsuketazko erreboluziogintza batetik iges egitea.

Ta hortarako beste zerbait aitatu behar da. Gaur egunean era batera edo bestera sozialista diran estaduak Herri atzeratuetan fin-

katuak eta aziak dira. Ez dago, ordea, adibiderik, ejenplurik, gizarte aurreratu ta industriatu bat sozialista biurtutakorik. Sozialismoa aurreratutako Herri hauetan jasotzeko asmoak eta burrukak planteatzerakoan, atzeratutako Herri hoietan finkatutako sozialismoa jartzen zen bide ta xede bezela. Ta hori, desegokitasun aundi bat da, argi danez. Gehiago, gaur, Herri bakoitzak sozialismoa jasotzeko bere bide egokia billatu behar duela esaten danean.

Zoritxarrez, ordea, apenas asi diran sozialista pentsalariak aurreratutako gizarteetan sozialismoa nolako izan diteken pentsatzen.

Ezkertiar berriak erreboluzioa posible dela diote, ta derrigorrezkoa gizarte gizontiar batentzat. Elezioak eta parlamentarismoa erlatiboak dirala sifinisten du ta medioaz besterik ez dirala artu behar artzezkerotan. Gizarte hauetako sozialismo berezi batean pentsatu behar dela.

NOLABAITEKO ARTU-EMANAK

Ta komunistekin, zer? Ez baidago ukatzerik, eta ezkertiar berriak ez dute egiten, onerako edo txarrerako, langille klasearen eta komunismoaren burrukak eta historia, neurri aundi batean beti ez bada ere, bat eta berdintsu xamarrek izan dirala. Gaurkoz, Europa'ko zenbait Herrietan, partidu komunistak dirala erreboluzioa egiteko ahalmenuak daudenak ezin diteke ahaztu. Baiñan, alde batetik konturatzen dira derrigorrezkoa dela komunistekin lan egitea, bestetik, ordea, hauek beste modu batekoak izatea nahi litzake. Ta honengatik postura zail batean arkitzen dira ezkertiar berriak. Komunistekin lan egin nahiean, hauek erabili beharrean arkitzen dira, baiñan hauek aldatu nahiean, hauei lezioak ematen baleude bezela.

Bestetik, eta, batez ere, gairontzeko politikariak komunismoa gerla otzaren garaian eta ondorenean bakardadean itxita zeukatenean, gutxi, ta bere iritzirako xeblebre xamarrek ziran ezkertiar berri hoiekin kontatu behar zuten bakarrik ez zeudela agertzeko. Baiñan gehienetan, ahal bezin laister, sozialdemokrata partidu aundiekin artu emanetan sartu nahiago zuten. Ezkertiar berriak, berriz, zailtasuna eta eragozpen aundiagoa dute sozialdemokratekin itzegiteko ta elkaritzeko komunistekin baiño.

Ala ere, ezkertiar berriak bere lana egin dute. Pentsatzen saiatu dira ta enseiu horren ondorenak azaltzen asi dira. Era guztietara,

dudarik ez dago, komunista eta ezkertiarren arteko artu-emanak nolabaitekoak dirala.

Komunismoa idikitzen dijoa ta txinoen esanak, castrismoaren errealdadeak eta burokraziaren gehiegikeriak egonezin bat sortuarazten dute komunismoaren baitan. Ez dira, bada, ezkertiar berrien asmoak ain selebreak.

KLUB POLITIKOAK ETA EZKERTIAR BERRIAK

Frantzia'n, De Gaulle'n agintera igoerarekin, politikalarientzat prolema espezialak sortu ziran. Zenbait gazte, orduan, batez ere unibersitario ta tenikoak, partiduetatik kanpora asi ziran lanean, politika pentsamentuaren alorrean gutxienez. Hortarako klub izeneko batzar batzuek eratu zituen: klub politikoak. Hauek lan egin dutenik ez dago ukatzerik, baiñan bi arpegikoak dira klub politikoak. Batetik, politikaren berritze ta gaurkoratzeaz arduratzen dira, bestetik ordea, tenika usai gehiegi dute, ekletizismoa ere bai, ta politikan karrera egiteko, ta azkar, gogo gehiegi.

Horregatik, partiduetan sartzen ez diran bitartean edo osatzen ez duten bitartean, ezin ditezke, besterik gabe, definitu.

Ta ari dira zerbait berria sortzen. Nederland'en, esate baterako, azkeneko elezioetan "Demokraten 66" izeneko partidu berriak botu asko bereganatu zituen, baiñan bere baitan sozialismoaren eta berritasunaren aziak daramazkin ezker, bien arteko batasun benetako bat egiten ez duen bitartean bi posibilidadade eramango ditu izkutatuta ta bi partidu diferenteen aziak, hauek asieran, partidu berdiñaren egal diferenteak bezela azaltzen baldin badira ere.

EZKERTIARREN BATASUNA TA PARTIDU BERRIA

Askotan, ezkertiar berrien lanak ezker guztiaren batasuna egitera doaz. Zenbaitetan, ordea, sozialista komunisten arteko batasuna egiteko, partidu hauen barrutik hortarako lan egitea ezinbeza dutelako, elkartzera behar-

tuak arkitzen dira, itz gutxitan esateko, partidu berri bat sortzera.

Ba da hontan ala moduzko kontradizio bat: lehengo partiduak desegiteko edo eraberritzeko berri bat sortu beharrean arkitzea. Partidu hauek, ordea, erabat espezialak dira. Ez dira partidu aundi batzuek, apenas duten historiari, ez dira elezioaz gehiegi arduratzen eta, batez ere politikagintzan, garbitasun aundi baten kezka dute; ba dute batez ere pentsalarien partidua dela adierazten duen kutsu bat. Ez dute uste partidu hauek proletariatzaren banguardia izan behar dutenik, langilleen morrontzan egon behar dutela baizik. Horregatik, beste ezertan baiño gehiago "sustrako batasun" bat sortzen saiatzen dira. Partiduen arteko batasuna baiño gehiago billatuko dute langilleen artekoa, partiduen aginteetik kanpora.

Horiek kontuan artu gabe egiten diran kritikak ez dute ezer asko balio. Pentsalarien partidua dela esan oi da desprezioarekin, ta hori ahalezifiaren seinñalea balitz bezela. Hontan ikusten da, ordea, partidu baten eta klub politikoaren artean dagoen diferentzia. Lehendabizikoak pentsatzea ta egitea bat egiten dute, horregatik dira partidu; bigarrengoak, berriz, batez ere asmatzera deditzen dira.

Partidu ta politikagille guztiaren egiteak xede bezela agintera irixtea du. Ta horrela da. Baiñan ezkertiar berrak diotena hau da, zertarako? Zer egiteko?

Ba dakit honelako gizonak ez diruditela agintera irixteko medioak jartzen dituztenik. Benetako ezkertiar batek gobernua bereganatzeko okasioak oso gutxi izaten dira, gutxienena, hori, burua ukatu gabe egin nahi baldin badu. Okasio hoietarako erne egon behar dela diote, izan ere izan dira historian zenbait erreboluzio gertatu ez diranak erreboluziogilleak hortarako prest egon ez diralako.

euskal poesia gaur

IBON SARASOLA

- otsalar
- jose azurmendi
- luis maria mugica
- amaiera

6.—OTSALAR (1).

—Milla bider atera zorian egon dan liburu bat dala edo, Aresti, Lasa, Otsalar eta Azurmendi'k olatu berri bat osatzen dutela dirudi. Dana dala, ba dute liaurok (aurreko euskal-poesiarekin konparatzen ba ditugu batez ere) kidetasun ainitz. Noski, ezberdintasunak eta diferentziak ere agertzen dira nun-nahi.

—Lauen artean, Otsalar'ek langille bezala agertzen du bere poeta: "poeta torniatzaillia", theorian beintzat. Berekasa eskolatu dan lan-

(1) Hona hemen Otsalar'en zenbait poema, argitaratuak izan diranak: "Aresti'ri" (EGAN XXII 100-101). "Dana jokatu nairik", "Nora noa, naas-maas?" (EGAN XXIII 68-70). "Alabearrez". "Sortzetiko kondena", "Urdiñez" (EGAN XV 23-25). "Giro illetari", "Libertade argia" (OLERTI 1963 I-II, 47-49). "Azkenengo bidean", "Esku utsik sortuak", "Maitatzeko arrazoiak badira", "Miraria" (OLERTI Ikurrin, 34-39).

gille bezala. Baiñan ezin dezakegu esan Otsalar poeta herrikoia danik. Eta ez da hau (ez horixe) akats bat, haren intelektualismoak sortu dituen zenbait obra dastatu ondoren batez ere.

—Har dezagun gogoan noiz azaltzen dituen lehenengo poemak: 1956-gn. urtean. Garai hartan hasten dira orain ezagutzen ditugun euskal-prolemari buruzko soluzio-ahalegin berriak, ikus-molde eta konzepzio tradizionalen balio-eza ikusirik. Dударik gabe, egon-ezin bizi batean arkitu behar ziran urte hoetan.

Euskal-Herri'ko pentsalari eta artista gazteak. Orduan hasten ditu Aresti'k ere bere ahalegin poetikoak.

—Euskal-poesian “generazino galdu” bat nabaritu dezakegu dudarik gabe. Belaunaldi hau analizatzea lan gaitz eta nekoso dala uste dut, eta ez dut oraindik bide hortatik abiatzea pentsatzen. Otsalar izanen dugu, seguru asko, belaunaldi horren representatzaillerik nabariena. Hau egiztatzeko entzun ditzagun Otsalar beraren hitzak, euskal poeta berriei mintzatzen dalarik: “Ni beti bakarti arkitu nauk. Nere pentsaerak eta sentierak ixildu nizkian iforik konprenituko ez ninduan beldurrez. Ta, orain zuek zatozte nik esan nai nituanak esaten, ta gainera nik esan al nizkian baiño askozaz obetoago... Orain ikusten diat euskal literaturan aspalditik gogoko nuan joera, nere luma aulak arkitu ezin zuana, alde batetik ezinez eta bestetik nere burua bakar-dadean galdurik ikusten nuelako. Maiz pentsatzen diat, **ni, gure errian beranduago** edo Europa'ko erresumaren batean **lenago sortu bear nintzala**”.

—1960-gn. urtean, hitzaldi bat eman zuen Aresti'k Donosti'n. “Poesia ta Euskal-poesia” izen-buruarekin. Otsalar'i buruz zion: “Gauza sakonak eta kementsuak egiten ditu, bortitza da, entelegutsua, adimentsua zerumuga zabaleko poeta, lasai dabil poesia gorengoaren alor aberatsetatik. Baiña, formarekin egiten du oztopo. Badaki koplak nagusi bat zer den ere eztakiela. Hura, Otsalar hori, funtsaren aldetik, ezin-hobea da”. Otsalar'en ordurainoko poemetan hau arkitzen dugu: gauza berriak eta bortitzak esaten ditu, baiñan olerkarien era harturik.

—Gehiago ari zaio kostatzen Otsalar'i olerkarien zama astuna gaintitzen Aresti'ri baiño. Hau ez da harritzekoa, bien kasoak nahiko diferentek bait dira. Txillardegik batek bezala, euskal-literaturan nabarmen falta diran gaiak eta moldeak ikusirik, eta aberastasun-eza honek bultzaturik jardun du batzuetan, (hala, bere poema existenzial kutsukoak) bainan euskal-literaturaren azken etapari uko ezin egi-

nik. Eta nola gaiaren aldetik bide seguruan dabillen, forman, lexikoan eta idaz-tankeran erakusten digu bere burruka latz hori.

—Hitzaren krisis baten aurrean arkitzen da euskal-poesia garai hauetan. Purismoaren fenomenoak zeatzki estudiatu ezker, ez da zail horrelako zerbait gertatu behar zela ikustea. Garbi-zalekeri honen kulpaz, euskal-hitz askoren sentidua eta esan-nahia bortxatu egin zan. “Hitz-di” berezi eta gazigeza bat sortu zan horrela. Poesian, hitz asko topiko biurtu ziran: “lilluratu” eta beste zenbait hitz. Hau ikusirik, poeta berriak izugarritzko prolema baten aurrean aurkitu ziran. Aresti'k behin esan zuen bezala, euskal-poesiarako hiztegia eta mintzo-moldea formatu gabe dago. Hau lortzeko bi bide ditugu: a) hiztegi berri bat eraikitzea, olerkarien urtean erabili ez ziralako “birgin” arkitzen ziren hitzak enplegatzeraz abiatuz (hau izango da Aresti'ren bidea) edo, b) hitz “kutsutueri”, burruka bizi batean sentidu berri eta jatorragoa eman nahi izatea. Burruka hauek euskal-poeta berri guzien konstante bat dira, batez ere Otsalar'ena.

—Hauek guziak gora-behera, Otsalar'ek, bere pertsonalitateari esker, leku berezi bat betetzen du. Goi-behera ta aldarte handiekin, gorputz galant bat duen poeta bat bezela agertzen zaigu.

7.—JOXE AZURMENDI (2)

—Laugarren liburukidea. Poesiaren alorrean azaldu zuen lehen-dabiziko lana, Gandiaga'ren “Elorri” liburuari egin zizkion oarpenak izan ziran. San Martin'ek dion bezala “agiri zaion olerkari on baten ezpala”.

—Urrengo obra, “Poema beltzaren arbola” izan zan, OLERTI'n argitaratu zana. Poema luze hau da niretzat Azurmendik orain artio osatu duen lanik inportanteena. Baliadunena ere hau dela uste dut. Tranzisioko poema bat da, lehenago aitatu ditugun oarpenen eta ondorengo poesia sozialaren arteko zubia. Sinbolismo eran jarraitzen du: frase bakoitzak bere balore estetiko du, eta ongi mugatzen eta zeatzen ez dan zentro erdi-izkutu baten inguruan jiraka diardute. Poema serio eta hats handikoa formaren aldetik. Gaia sakona eta bortitza, formari ondo egokitua.

—Ondorengo poematan sozial gaiari lotzen zaio. Formaren aldetik, naiz sinbolismoaren barnean jarraitu, poemaren sentidua ea zu-

(2) Zenbait lan argitaratuak: “Poema beltzaren arbola” (OLERTI Izor, 25-33). “Antipoesia” (OLERTI, udazkena, 59-62).

zenean ematen zaigu, eta sinboloak alegori bilakatzen zaizkigu. Dana dala, esaten dudan hau poema batzuetan bakarrik ikusi diteke. Gainerakoan argi ta garbi ikusten da gaiaren berritzeari ez diola jarrai forma lantze batek, eta sinbolismoaren teknika erdi-bazterturik, Aresti'ren eta Lete'ren "lekukotasunaren erti"-ra ez dala heltzen. Erdiko bide baten geratzen da. Horrela, gaiaren aldetik irabazi duena formak (hots, poesiak nahiz poesia eta forma gauza ezberdiñak izan) galtzen du. Poesian lege ezin etena baita forma ta gaiaren egokitasunarena. Fenomeno hau klar eta garbi ikusi diteke "Lurraren seme" poeman, adibidez. Erdal itzulpena irakurri ezker, bere indarra eta taju bortitza ikusirik, badirudi ezen jatorrizkoa poema on bat izan behar duela. Baina originala irakurri ondoren, poema frakasatu baten aurrean gagozala iruditzen zaigu. Poema hontan, forma (eta batez ere esan-moldea) motela da, zoritxarrez.

—Europa aldean dabil orain Azurmendi. Azkenengo JAKIN-en Alemaniar lirikaz eskeini digun lan interesgarrian ikusten danez, konaturatu da formaren inportantzia eta lehenago aitatu dugun egokitasunaren beharraz. Berri pozgarria hau, zeren forma landu ta egokitzten badu, Joxe Azurmendi'ren arbol beltz eta gorriak eman ahal dizkigu berriro fruitu onak.

8.—LUIS MARIA MUJICA

"Bide-giroak" liburua azalean bakarrik ezagutzen dut. "Urdin eta burni", Oliva'ko monasterioan, Nafarroa erdian, duela bi urte, Aste Santuan (hots, liburua argitaratu berria zanean) irakurtzen hasi nintzen. Irakurtzen hasi nintzela esan dut, ez bainintzen bukatzeko kapablea izan. Ez zitzaidan liburua oso interesgarria iruditu. Atarikoan agintzen ziran erdiak ere ez nituen arkitu. Egun hauetan begiratu sakonagoa eman diot liburuari lerro hauek eskribatzeko asmoan. Mahai gainean 1965-ko EGAN-a dut.

—"Urdi eta Burni"-ren lehenengo poema irakurtzen dut.

*Zeru txukun
zikindua.
Urdin neskatx
ikufua.
Zeru txukun
urdindua.*

Nahi gabe edo, Aresti'ren "Maldan behera"-ko beste hura etorri zait burura:

*Haritz bedeinkatua
adoratu nuen.
Nire belaunak
lurrean jarri
nituen.*

*Ordu hartan
nik ez nekien
zerk iharrosi
ninduén.
Haritz bedeinkatua*

Baita ere "Elorri"-ren bukaerakoa:

*BEGIAN jaio zan.
Nire eskuak ez eutsan
ikutu sekulan.*

*Iruntz-tanto bat zan
okaran baltzean.*

Begian jaio zan.

Dana dala, delako kidesan hau idaz-tankeran datza eta ez estilaren muinean. Estiloaren aldetik, egituraren espresionismoa agiri-agirian azaltzen zaigu. Van Gogh'en azkenengo pinturaz (Cornejas sobre un trigal...) oroitzen naiz. Expresionismo honek eraginda, sufritzen du haren euskerak bortxa-aldi interesante bat.

—Bainan ainitz gauza konprenigaitz arkitzen dut liburuan. Hauen artean larriena liburuaren asmoa, benetan lan gaitza baita estilo ta teknika horiek dirala medio, "Estetika Jainkoratzan aalmenetan" gaiari buruz jardutea. Nik beintzat (San Martin'ek bezala) liburua bilusik jarrita ez dut ezer arkitu. Teilhard'en obra, asmo eta mundu-konzeptio ongi xamar ezagutzen ditudala uste dut. Eta...

Labur: dialektikaren aldetik begiratu ezkerro, liburuan arkitzen diran kontradikzioak liburua ezereztu egiten dutela uste dut. Asmoak

gainezko egiten dio obrari eta horrelako liburu batek behar duen batasun derrigorrezkoa ez da inun nabari.

9.—AMAITU GABEKO LAN BATEN AKABANTZA.

—*Nere lan hau bukatu baino lehen, beharrezkoa dut zenbait egilleen obra aztertzea. Adibidez, J. M. Lekuona'rena, Markue-rena, eta batez ere, Xabier Lete'rena. Bainan ez dut hauetatik nahi izango nuen ainbat obra bildu. Horregatik nahiago dut denpora batez lan hau uztea, amaitu baiño lehen.*

Mikel Laso'ri buruzkoa sakondu beharrean arkitzen naiz. Zenbait gauza ongi zeaztu gabe gelditu ziran.

“Gerla ondorengo euskal-poesiaren antologia” prestatzeko asmotan nabil, 1945-gn. urtetik hasita. Bainan, hontarako asko irakurri, asko ikasi eta asko estudiatu behar dut. J. M. Castellel'en “Un cuarto de siglo de poesía española”-n antzera egin nahiko nuke. Bainan guzi hau ez dator arira.

JAINKOA eta MATERIA

TEILHARD DE CHARDIN

Zer da Jainkoa? Nor da Jainkoa? Nun da Jainkoa? Hauek izan dira ta dira garai eta leku guztietako gizonak egifiko galderak. Jakingura honeri erlijioek erantzun diote.

Jainkoa izpiritua da. Jainkoa izadiaren kreatzaille ta egillea da. Jainkoa denean da.

Ta gizon gehienek nahiko zuten hauekin ta ez ziran larritu. Beren adimenak ez zien besterik eskatzen ta bare ta trankil bizi izan zijoazan.

Baiña egun batean Erdi Aroko jakintza hamildu zan ta despres-tijiatu. Teoriak, orduko teori olerkizko ta zaharrak, ahaztuta bezala lotu erazi ziran narruzko ta pergamiñozko liburu haiekin batera.

Odola ba dabil zaiñetatik, ez dago, lehen pentsatu lez, geldi.

Mundua biribilla da, ta ez laua, antziñakoek uste bezala.

Lurra eguzkiaren ingurutik dabil ta ez berau lurraren ingurutik, Josue-k "Eguzki, geldi hadi!" esan arren.

Gizona beste animali batzuegandik sortua izan da, eboluzioz, Moisek Jainkoak buztifnezko egin zuela bazioen ere.

Ta honelako asko ta asko gertatu dira zientzi guztietan. Duda ta galdera bide berrien urratzailleak izan ziran ta mitoak eta erlijioeriak alde batera utzi ziran zientzi arloan.

Ta honetara hogeigarren mende hontako zientzia sortua dugu.

Ta duda, zalantza, erlijio arlora ere etorri zan.

Zer da izpiritua? Nun dago? Zerez egifia da? Zer da Jainkoa? Zerezkoa da? Nun topa daiteke?

Zientzistek ez dituzte orain Erdi Aroan sorturiko erdi ipuin haiek. Izpiritua ikusi ezifia dala esatea merkea da, baiña horregaz geure ezjakintasuna estalten dugu.

Jainkoa beharrezkoa dala esateak ez duke ezer ere argitzen, gauzak berezkoak izan daitekezalako, Jainkoa bera, erlijioen aburuz, berezkoa danez.

Ta erlijioak gitxietsiak izaten hasi ziran.

Gizon kulturduinak urrundu egiten ziran berek aditzen ez zituzten nahaspil ta ipuin zoragarri baiña eskas haïetatik.

Zientziak zerakusana erlijioen teorien aurka zegoan. Berriro ere Galileoren arazoa; egia egia da, Aita Sainduak eta liburu beneragarriek ezetz ba diote ere.

Elizaren pentsakera ere atzeratua lotua zan. Ez zegokan mundu berriari.

Ta katolikuak eta beste kristau guztiak ezjakintzat eta fanatizatzat hartu egiten ziran.

Baiña egun batean argia sortu zan berriro, ta bide illunak klar ta zabal ikusi egin ziran. Elizak gizon bat zeukan, teologiaz ostera, jakintza ta zientzia, hots, mende hontako zientzia ederki zekiena: Teilhard de Chardin.

Saiotxo hontan bere teori ta aburu zorionekoak agertu nahi ditut, Elizaren orain arteko zientzi arloa nola utzi duen jakin dadin.

Eleizaren pentsalariak aztertzen baditugu, laster konturatuko gera gehientsuak antzifikoak diranaz. San Agustin, San Tomas, eta beste teologilari ta filosofilari ospatsu gehienak oso igaroak dira.

Beren teoriak osotzeko orduko jakituriaz baliatzen ziran ta halako oïñarriak harturik erlijiozko filosofi sailak eta liburu lodiak betetzen zituzten.

Elizak, orduko pentsalaririk onenentzat hartu zituen ta bere lanak ikaskaitzat jarri zituen apaizgaitegietan. Jakintza soilla, hots, Jainkozko zientzia ez zana, ez zan agindu ikasteko, sakonki, behintzat.

Ta hortik galmendia etorri zan: Erdi Aroko jakituria zaharturik lotzean, seminarioetako filosofia ere, berekin batera zahartu zan ta desegokitu.

Apaizak beren antzifiko teori barraikarriez hari ziran oraindio ta jakitunek barre zegiten beren lepotik.

Nik oindik gomuta dut zelan, ni eskolakoa nintzanean, etorri zitzaigun abade debozifotsu ta on gurako bat, protestanteen ta eboluziozaleen teorien aurkako eritziak eta kontseilluak ematera.

—Gizona ez dator tximinoengandik —zioskun Jainkotasunezko

arrabi sainduaz—. Horiek guztiak gezurrak eta tontokeriak dira jainkobakoek asmatuak. Bibliak argiro dio nola Jainkoak buztinaz egin zituen Adan eta Eba. Gaifera —ta gure arteko mutiko bat harturik agertu zigun—, begira mutiko hau. Ba ote dauko beronek tximio antzik? Bere begiak tximio batenak bezalakoak ote dira? Illerik ote du tximiotzat har dezaten? Ta hagin zorrotzik ote? Ez, ez dauko. Orduan argi ta garbi dago nola guztiok asmakeriak diran ta ez diegun jaramonik egin behar.

Ta hauexek ukan genituen azalpen guztiak. Beronen ondorioak ezin txarragoak izan ziran.

Orduko mutikook gizondu egin giñan ta liburu sakonak irakurri, Charles Darwin'en aurrerakuntzari buruz ere bai. Ta Elizaren pentsakera, abade gizagaixo haren bitartez emana, tontokeritzat hartu genduen arrazoiz.

Ta honetara beste asko.

Baiña ni ezin noake bide guztietatik, ta lot nadin Jainkoari buruzko probleman. Zer da Jainkoa? Nor da Jainkoa? Nun da Jainkoa?

Jainkoaren izakera izpiritu huts batena dala esatea gauza eskasa da, misterio bat estalteko jarten dugun aitzaki bat.

Atomoa ezagutu baiño lehen ikusi ez ditugun txataltxoei izpiritu esan bagenio, zientziak ez zirakean tanto batez ere aurreratuko.

Jainko ikusten ez dan gauza bat izan daiteke, baiña nolabaiteko izakera ta izatasuna euki behar duen zerbait, ez pentsamentuzko hitz baten esan guraren misterioa.

Ta zer da izpiritu bat? Gorpuzkerarik ez daukon indar bizi eragilea, noski. Ta hori, zer da? Ta teologilarien ahotsak mututu edo nahasi egiten dira. Ez dakite. Funtsez ez dakite zertan hari diran mintzo. Tamala da.

Nor da Jainkoa?

Gauza guztien egillea. Mundu hontan gauzak ba dagoz ta, egiñak diran lez, egille baten premia daukate, erloju batek bere erlojariarena daukanez.

Ez dago semerik aita barik.

Ta Jainkoa nork egiña da? A!, dioskute teologilariak: Jainkoa berezkoa da. Jainkoaren izakera berezkitasuna premiazkoa da, bera egin bakoa da. Bera egin bakoa da.

Lehen esplikazio honekin munduaren askotarikotasuna argitzen zan. Errexago siñesten da Jainko kreatzaille bakar bat, mundu honetako izaki ta gauza guztiak baiño. Izadia askotarikoa da, plurala,

Jainkoa bakarra; bietatiko bat berezko dala sifnestekotan, errazago sifnesten dugu bakarra dana.

Ta, mundua plurala zala pentsatzen zanerako, esplikazio hori polito zetorkean. Baiña egun, munduaren ta izadiaren askotarikotasuna itxurapen bat besterik ez dala dakigu. Animali bat, gizon bat, landare bat, harri bat eta izar dirdiratsu ta urrun bat, materi berdifiñaz sortuak eta osotuak dagoz. Elektrotasunez egifiñak dira. Guztiak dira bat funtsean.

Orain oso famatuak dira arezko (ondarrezko) gazteluen txapelketak ondartzeta guztietan. Area, berdifiña bada ere, askotara molda daiteke: gaztelu bat, dorre bat, esfinje bat, eskultur bat... eta abar eta abar, baiña itxura horiek urrundik ezberdifiñak izan arren, arezkoak dira muiñez. Berdifiñak dira.

Ta, izadia, orobat da. Dena homogenea dateke; zientziak argitu bezala, askotakorik ez da.

Ta Jainkotasuna, gaitzagoa, zaillagoa bihurtzen zaigu orduan. Jainkoa sifnestea zein materia sifnestea berdin da. Bitariko bat haukeratu behar bada, errazago da baiña ikusten dana sifnestea ikusten ez dana baiño.

Ta Jainkoa zientzi arlotik zirriborrotzen da mito bat bailitzan.

Bai, diosku zientziak jakitunen ahotik —lurra nola zegoekan hegaz airean edo zabalean ez zekitenean, grekoek Atlas jigantaren lepoan zegoala esan ziguten. Ta, gero, izadiaren askotarikotasuna nola izan daiteken berezko ez jakitean, Jainkoa asmatu zan modu berdifiñez.

Ta, grabitazioa argitzean, Atlas aienatu zanez berdinzki desegingo da Jainkoa, Fisikaren azkeneko legeak argitzean.

Nun da Jainkoa?

Denean dago. Denean omen dago, ze, egia esan, ifiun ere ez da ikusten —esan lezake sinesmenik ez duen edozeifiñek.

Atomoaren lege, orbitak, erradiatzeak eta xehetasun guztiak era-kutsirik atomoa bera zelanbait agertu eta demostratu ez balitz, ifiñork ez luke halako asmakeririk sifiñetsiko.

Jainkoaz, berriz, horixe gertatzen zaigu. Ondasuna, betikotasuna, ahal nehurri bakoa, izpiritutasuna, eta ez dakit zenbat atribuzio jarten dizkagu, ta bera ezin dugu probatu hitz nahaspillez ez bada. Ta oindio miretsi egiten gaitu sifiñesmen bakoen barreak!

Iñozoak gera gero! Nork ez du holako teoriiei barrerik eginen? Ta, guk egiten ez badiegu, familiko ta herriko kristau ohiturengatik besterik ez da.

Pentsa dezagun momentu batez ez gerala kristau, ta erlijiorik ez digutela sekula erakutsi. Baiña kultura ba dugu, ikasiak gera ta ba dakigu. Izadiaren askotasunezko itxurapen ta materi bakarraren berri.

Nola hartuko genituke apaiz baten esanak Jainkoari buruz? Irri-parre batez, noski baiño noskiago. Orain hinduist batenak hartzen ditugun bezala.

Ordua da, behintzat, erlijioa frogatzeko daroagun bidea desfasetua ta antziñan lotua dala aitortzeko. Hortik ezin jarrai.

MATERIAREN ERREALITATEA.

Honen ondoren esango ditudanok teori bat besterik ez dute osutzen; beraz, izan leiteke noizbait beste fisikazko argitasun batzuek, berriagoek eta aurreratuagoek, lurrera botatea; baiña hala ere azkeneko zientziak darakuskigunaz egia da ta ez Erdi Aroko pentsakera eragotziaz.

Has gaitezcan aitortzen Izadia berdin derdina dala sakontasunean eta muiñez. Materia aitortzen dugu, frogatua baita.

Ta ezin dateke Jainkoa materi zabal ta berdin berdin hau izan? Dakusagun. Elizaren jakitun zaharrek ez zuten posibilitate hori iñoiz onhartu.

Egillea ezin da egia izan. Ezin baitekez nahas idei bi hauek.

Egillea, hots Jainkoa, gauza bat da, ta egia, izadia, beste bat. Batek bestea sortu zuen. Ez dira biak bat.

Teologilari jatorren aurkazko eritziak, baiña, ez dira berez bat ere esan guratsu.

Lehen ezin uler zeitekean nola egille bat beraren egia izan zeitekean.

Baiña hala ere idei hau ba zan greko batzuen artean, hots, panteismua. Haietariko batzuek izadia jainkotzat hartu zuten, dena da jainkoa esanaz. Baiña teori honeri akats aski topatu zizkioten, mentalitate hertsiz ikusirik, ta baztertuta izan zan guztiz.

Teilhard'ek, berriz, panteismua goratu eta berrargitaratu zuen dimensio berriaz.

Berak ederki jakin zuen, zientziak, batu kreatzaillea ta kreatua behar dan moduan.

Pentsa dezagun nolako Jainkoa gendukean materia, bera Jainkoa balitz.

Materia, gauza ta izaki guztien egilea eta gaia litzake. Materiaz sortuak lirake ta materia guztiengan legoke funtsez.

Materiaren hedakuntza ta zabaltasuna denean dagoalarik, izaki guztia materiaz egiña litzake, ta teori hau onharturik, Jainkoz sortua.

Honetara jainkoaren egilletasuna ta gauzekiko arduratasuna ederki gordetzen dira, Jainkoaren muiña gauzen barnea bera baita.

Ta, berriro, jarriko dut adibide bat: arearena. Ondartza batean dagozan arezko gaztelu ta eskultur guztiak areaz egiñak dira, baiña zer jazoko litzake area mineral arnas bako ta indar bakoa barik, enerjizkoa ta eragillea balitz?

Ondartza osoa bizirik legoke ta gaztelu, dorre, eskultur ta irudi guztiak, arezkoak diran aldetik, areak sortuak eta ardurapetuak lirake.

Izan bedi ondartza geure izadia ta gaztelu, dorre ta itxura guztiak izadiko atomo, molekula, metal, landare, bakterio, animali ta adimendunak.

Izan bedi ondartza hori Jainko ta izakiok Jainkoaren gaiaz egiñikoak.

Ta orduan, zer? Nolako panteismua litzake hori? Azter dezagun problema.

Izakien nortasuna errespetaturik legoke, bakoitzaren izakera, krea-tzaillearen materiaz egiña balitz ere, beretik eta bere gorpuzkeraren legeekin biziko litzakelako.

Adimendubakoen artean, beren nortasuna eboluzio legepean geratuko litzake, ta beren askatasuna beren garaunen haunditasunak eman litzake: aurrerapena nolakoa, argitasuna halakoa.

Gizezkoongan, eta dagokezan beste adimendunengan ere, geure askatasuna ta nortasuna haundiagoak dira, geure garauna pentsalaria baita.

Jainkoz sortuak gera, baiña Jainkoak ez du pentsatzen gugatik. Libreak gera, ondartzako areak gura dukean itxura ta modua hartzeko haukera daukan bezala, ondartza gora behera.

Ondartza barik ezin dagokez arezko eskulturik, baiña hala ere ondartzak ez dio bertako gaztelu edo dorreei inolako nortasunik kentzen.

Jainkoa horixe bera litzake. Ez dago antziñako panteisten aurkalariek uste zuten arriskua: gizona ez da Jainkoarentzako ur tanta bat itsasorentzat dana. Gizona ez da galtzen Jainkoagan. Gizona Jainkoaren atal pentsalari bat da.

Gizartea, garai eta leku guztietako giza izpiritua, Jainko horren agerpena besterik ez dira, ta beragana doaz heriotza ta maitasunezko aurrerapenaz. Heriotzan, giza izakeran dagoan izpiritua Jainkoaga-

natzen da, ondartzako area, gaztelua bustita gero, ondartzan lotzen dan bezala.

Baia gizona ez da area, bere mortasuna ezin gal daiteke, gazteluaren mortasuna ondartzan galtzen dan bezala. Jainkoa gizanortasunak batzen dituken kolektorra dateke. Hareganatzen gera gorpuzkera galdurik.

Ta Jainkoa geure giza ahalegin guztien helburua da.

Aurreraldakuntzak bizitzaren pausoak erakutsi dizkigu. Materiak askotariko abarrak sortu ditu adimen billa. Kristalak, protidoak, birusak, bakteriak, landareak, protozoak, arraiñak, urlurtarrak, narrastiak, hegaztiak eta ugazdunak materiaren okerbideak besterik ez dira, adimena erdietsi nahiz.

Gizonagan ahalegin guztiok garaitu dute beren nahia.

Ta pauso okerrak zertarako? Zertarako hainbeste abere adimen-dubako? Nolako jainko itsuk egin ditu?

Pauso okertzakook beharrezkoak izan dira. Materiaren elkar-tzeak, matematikak eta probabilitateak egina izan dira aunitzetan, ta askatasunez, ez determinismuz. Ta bere frutua pluraltasuna izan da.

Ta pluraltasun hau beharrezkoa da gizonarentzako. Mundu honetan gizonaz besteko animali ta landarerik ez balitz, zertaz jango genduke? Zegaz jantziko gina? Nundik aterako genduke etxeak eta lanabesak egiteko materialak? Mundu hontako beste izakiak ere beharrezkoak dira. Baleiteke batzuk alfertzakoak izatea, eskorpio bat edo larrasuge bat, esate baterako, hobe ez balego holakorik, esan leiteke, baiña aurreraldakuntzak honelako abere ta landare gaiztoak darakuskiguz, bere probabilitate legeen ondoriotzat.

Ta gizona egitean ta sortzean badirudi aurreraldakuntza lotua dala, geratua gelditu zaikula.

Zertan agertzen da, ba, gaur, aurreraldakuntza? Noruntz goaz oraingo gizonok? Zelako helburua dukegu?

Ta Teilhard de Chardin'ek etorkizunaz mintzatzen digu.

Begira dezagun igaroaldia ta dakusagun gertatua.

Animalien artean norgehiagoka bizia dago bakoitzaren arrazaren nagusitasuna ta indarra hedatzeko. Elkartasun onurakorrik ez dago. Norberakeri itzala ta izugarria dago.

Abereen artean talde ugariak ez dira luzarokoak ta, gainera, noizean behingoak besterik ez dira izaten.

Intsektak ugariagoak izaten dira ta iraunkorrak beren talde ta elkartasunetan (termitak, txiñaurriak, erleak...), baiña txikiegiak dirateke adimen nagusi bat erdiesteko, Teilhard'en eritziz.

Gizona lotzen da bakarrik nagusi ta elkarkoitzat.

Antzifian, gizona animalien pare zan. Burruka ta elkar hiltzea bere bizi legea zan.

Baifia gerlen ostean, bakea etorri da ta herriak elkarreri begira hasi dira. Urrutira behatu barik, oraintsukoak ditugu Europa'ko Elkarrekiko Merkatua, Sobietarren Errepublika Sozialisten Elkartzea. UNESKO, ONU, Ameriketako Estatu Batuak eta beste honelako ta antzeko asko.

Gizona gizonaren laguna da. Mundua sozialismurantz doa arinzki.

Ta ahuxe dugu aurrereldakuntzaren azkeneko pausoa: elkartasuna, anaitasuna, elkarrekiko maitasuna... Jainkoaganatzea.

Giza espeziaren sozializatzeko haur aurrerapentzat har daiteke zientziatzki? Baietz erantzun behar. So dagiogun bada!

Molekula batean atomoak dira osotzailleak, zelula batean molekula dira atalak, txifurritegi batean txifurria dugu atalkia.

Baifia atomoak ez du bere nortasuna galtzen molekula osotzean, ez molekula zelulagan ez txifurriak bere txifurritegian. Bakoitza bera da ta ez albokoa, ez laguna. Osoa aberastu ta haundiagotu egi ten dute beren izakera desegiteke. Ta horixe dateke gizonaren etorkizuna.

Munduan maitasunezko indar batek gizonak elkartzen ditu (Oma) ta beste batek, atzerakuntzak, antzifianako borroketara eroan nahi ditu, gorroto bideetara (Gaiztoa). Bikoiztasun hontan dagoke etorkizuna.

Badirudi aurrerapena lotuko dala garaille ta atzerakuntza baztertuko dala ta ahaztuko, baifia oindio burrukan gagoz, garaille nor lotuko.

Teilhard'ek, baikorra izanaz, on bidearen garaipena profetizatzen digu, beharrezkotzat gaitzera. Horixe munduaren helburua bailitzake.

Gizarte elkartu ta maitakor horregan eboluzioaren azkena lotuko da, Jainkoa, (Materi aurrerarlari ta maite eragillea) sortua litzake gizarte zoriontsu hartan ta Izadiak bere osotasuna leukake.

Orduan —pentsa lezake norbaitek—, ez ote dago oraindik Jainkorik? Jainko dalako hori gizarte pentsalari ta elkarkoi baten frutua izango ote da?

Hori hola balitz, mundu hobe baten ahalegiñak alferrekoak dira mundu zoriontsu hori ikusi ez duketenentzat.

—Bai, esan genezake —noizbait mundu hau jainkotu egingo da, ezin zoriontsuago izanen da, baifia agian guk ez dugu ikusiko. Zertarako bada geure ahalegintasun ta erromantizismua? Beste batzuk,

geure ondorengoak, ondo bizitearren, guk bizitza neketsua eroan behar ote degu? Zergatik?

Hobe da ezer egiteke egotea. Fruturik ez badugu, zertarako lanik egin? Bihotz zabalekoek egin lezateke, baiña gehienentzat sari bako lana lerroa dateke.

Ta hauxek, lirake, gitxi gora behera, mundutarron pentsamenduak holako etorkizunari buruz.

Baiña materia ba da orain ere. Jainkoa ba da oraindik.

Nola izan daiteke, bestetik, holako erakortasuna egotea erakarle barik? Nola joan gaitekez gizonok ondasuna, elkartasuna ta maitasun osoaren billa ifun ez balegoz? Burdiña imanagangatzen da berez, baiña iman barik ez da higitzen iforantz.

Gizonok ere ezin gaitekez joan eta abia ez dagokean gauzatara.

Baiña, egia esan, Jainkotasun estadu hori etorkizuneko gizartearen helburua da ta ez oraingoena. Efektoa kausaren atzetik dator, eta ez bestela.

Nola datorke Jainkoa (gizarte aurrerratu ta maitakor elkartu baten efektoa) gizarte hori baiño lehen?

Baiña Fisikak zerbait agertu digu azkeneko urteotan.

Kausa ta efektoa, eragillea ta eragiña, bata bestearen urrengoak dira.

Garaian, denboratan, bata bestea baiño aurrekoagoa da. Baiña denborarik ez duken izaki orokor batentzako, efekto ta kausa ez dira zertan izan bata bestearen urrengo; aldatu daitekez.

Materia, orain arte behintzat, energi itxurapenez agertzen zaiku, fenomeno bat bailitzan.

Jainkoa fenomeno hau edo energi honen eragillea litzake, homogenea ta zabal zabala unibertsoan. Teilhard'en hizkeraz, **alfa**.

Alfaz izadia egia da. **Alfagandik** eta **alfaz** dagozan izaki guztiak dira ta aurrereldakuntzaz bizitza ta adimena lortu.

Izakirik aurreratuenok, elkartasunez eta maitasunez **Omegagana** goaz, Jainkozko gurentze eta sublimatze haundios horretara. Baiña **Omega**, denboratasunik ezaz, ba da oraindik ta berak erakarten du gizona beragana.

Azkeneko gizarte alkartu ta zoriantsua ikusi ezin dutenontzako heriotza bidez damaigu atsedena ta bereganatzea.

Guztira:

Jainkoa, Omega, Garai-zabaletasunen lokarrietatik at agertzen zaikun Foko erakarle, maitatzaille, maitagarri ta elkar maite eragille

bakarra da. Gizanortasun guztien batzaillea ta osatua dateke. Atzera eziañ ta atzera eraz eziañ da ta, berari esker, bakoitzak betikotasuna eukiko duelako garantia hartuko du, Beraren izatean denon izpirtutasunak izan behar diralako, osotzailleak izaki.

AZKENA:

Hauek dira Teilhard de Chardin'en zientziatzko eritzi berriak erlijoiari ta Jainkoari buruz.

Jesuist hau txit paleologilari ospatsua izan zan bere garaietan.

Bera hari izan zan *Sinanthropus pekinensis* (Pekingo gizona) famatuaren billakuntzan ta bere istudio ta Biologi lanak oso haintzat hartuak izan dira kulturdun denen artean.

Bere liburuak hizkuntza askotara itzuliak dira ta bere "Le phénomène humain" Errusi'ko gobernuaren babesean argitaratu da Sobietar estaduetan.

Bere aburuak ez dira osoak eta akats eta fantasi nahiko topa leitekez, noski, haiengan. Baiña pentsa dezagun bera izan dala, Zientziatz, erlijio ta teologizko prolemak aztertzeke bidea hartu duen lehen-bizia geure garaietan.

Era berriak eta sail ezezagunak urratu ditu, aurrerakuntzaz Jainkoagana esanaz.

Fisikak eta beste zientziek, errelatibitatea eta abar, lagun ahal izango digute oraintsu arte misteriotzat dauzkagun milla gauza azaltzeke.

Baiña Eliza, beldurta xamar izan da ta ezjakiñean, edo prudentzi edo zuhurkeriz. Teilhard'en liburuak luzaroan egon ziran illunean eta argitaratzeke Eleizaren zentsur ezjakin eta ezgauzogatik.

Berriz ere teologilariet epaitu nahi zuten beren jakituririk at zeukaten gauza bat, ta zoritxarrez, jesuistaren lan interesgarria berandu agertu zan munduaren aurrean, ta Elizaren postura, aurrera-koia izan beharrean, atzerakoi eta beldurta agertu zitzaigun.

Baiña, zorionean, gauzak aldatu egin dira. Teilhard de Chardin'ek markaturiko urrats berrietatik jakitun asko dabilta argia billatu guraz.

Jar dezagun beronengan geure itxadopena ta gabiltzan guztiok zientziak erakutsiriko bide argietatik, egirik bada, zelan edo halan beti argituko gaituelakoan.

GAURKO MARXISMOA ERLIJIOAREN AURREAN

JOSE AZURMENDI

Jainkoaren Piztuera?

Nunbait esana dut marxismoa kezkatan dabilhela. Alde askotatik igarri uste dizkiogu kezkaon seiñaleak. Erlijioarena hoetako bat. Lan honen titulo-azpiak pentsaeraz lezakeana baiño koxkorragoa da, halare, nire asmoa: neke haundirik gabe antzeman dezaioke irakurleak tendentzia agiri batekin eramana dagoela hemen ari, tendenzioso izatetik libratuko naizela itxaro nahi nuke, hala ta guztiz ere.

Errusia-n ez bezalako eta uste ez zituen halako prolemak topatu dizkigu marxismoak erlijioarekin. Ez dago dudarik erlijioa dala (katolikoa batez ere) komunismoak sartaldean jo duen kontrarik astunena. Hori Togliatti-k berak aspaldian aitortua dugu eta berriro aitortu digute berriki, albotik eta zeharka bada ere, Venezuela-ko komunistek, Castro-ren erreholuzioak irabazi ahal izan bazuen, Elizak (eta industrialek) emandako laguntzagatik izan zala diotenean.

Erljioa ta progresismoa elkarrekin ederki konpon ditezkeala ere bixtan agiri zaigu gaur (modari jarraitzeko Joanes XXIII aipatuko dugu). Ez dago ukatzerik halare, fenomeno zozial bezala, berri xamar dugula azkeneko hau.

Berebat ez oso zahar dugu, baita ere, komunistek oraintsu ikusten hasi baldin bazaizkigu erlijioak ere balio izkutu asko dituela.

Kondizionamendu berri batek esitzen gaitu gaur, gure eginkizunetan, bai komunistak eta bai katolikoak. Jeneralean esanda, behiñepein.

Jaungoikoa enterratu nahi zutenak.

XIX-garren gizaldia Prometeo-ren gizaldia dugu. Baztar guztietan Jainkoaren kontrako erreboluzioa sortzen ta sartzen da (gu atzeraxeago gabilta beti). Nietzsche eta Marx izen gutxi dira, baiña nahikoa izen bai egoera hari apur bat antzemateko.

Prometeismo honen ondarrak, Unamuno ta Sartre ahazturik ere, ez dira oraindik zeharo garbitu: Simone de Beauvoir gogoratuko dugu, berberak autobiografian ematen dizkigun argitasunekin. Ba dirudi azken bolara honetan gogor sartu zaizkigula aizeok euskal ibarrotan ere, esaten didatenez (gure fenomenoa de Beauvoir-ekin ezertarako alderatu nahi gabe).

Ateismoa moda biurtu zan; ateismo erdi zan oraindik, ordea, laboratorioko ateismo, intelektualendako dosis berezietan prestatua.

Humanismo atea.

Izan ere, egiazko ateismoa, zalapartarik ez protestarik gabeko ateismo guztiz korrientea, gizartean finkatu ta zabaldua, izateko ta agertzeko justifikazio filosofikoen premiarik sentitzen ez duena, XX-garren gizaldian ezagutu dugu. Jainkoaren asesinoek sikologia kurioso bat baizuten gehienetan: Nietzsche, beharbada. adibide nabarmenena. "Jaungoikoa il da" deadarka ari zan bertan moja batek baiño fede gehiagok eta gehiegik kixkaltzen zuen gizajoa (ikus haren poesiak).

Jaungoikoaren hiltzailleen semeek estreñatu digute benetako ateismoa, humanismo atea. Estadu jainkogabeak ere eratu zaizkigu. Estadu hoek ez omen dira, diotenez, Jaungoikoaren kontrario (nola izan ez danaren kontrario?); Jainko gabeak dira ta kitto.

Halabaiñan, errezagot izan zan nunbait Jaungoikoa hiltzea, erlijioa akabatzea dana baiño. Neuk ikusikoa dut hori Budapest-en. Hauxe bera aitortzen digu baita ere Garaudy-k Poloniaz: komunistak nagusi diran ezkeretzkoan katolizismoa indartsuago biurtu da. URSS-en bertan ere, oraindik, Erreboluzioa ezkerreko lehenengo aldiz aurten egin dizkiguten inkestetan azaldu omen denez (haietzaz asko ez badakigu ere) "zer pentsatu sortzen omen dute" (errusiarren aitortzaren harabera). Yugoslavia-ko gertaera ondo ezaguna da hura ere, Ungaria-zer esanik ez, etc.

Jainkoaren piztuera.

Erljioaren iraupen hau kapitalismoaren ondakin zala pentsatu dute komunistek denpora batean. Azkenean, ordea, eta katoliko nahiz budista progresistak ezagutzean, filosofo marxistaren batzuek erlijioari pixua ta neurriak berriro hartzen atrebitu zaizkigula dirudi. To gliatti-k (**Memoriale di Yalta**) hasi zigun birajea: erlijioa orain arte ez bezala pentsatzen hasi bearrean gaude, derrigor.

Erljioaren iraupen hau ezin diteke kapitalismoaren ondar dala-koarekin egoki azaldu, jarraitzen zigun gero Salvatore di Marco filosofoak. Ba llike erlijioa herriaren opio izana, ausartzen zan Lombardo Radice, baiña ez da agiri zergatik izan beharko lukean berez eta ezinbestean holakorik. Erljioaren naturaleza eta erlijioaren agerpen historikoak bereizten hasi zaizkigu...

Mario Manacorda ta Lombardo Radice-k diotenez, Marx-en txuak arretaz irakurri ezkerero ondo bereiz omen ditezke haren pentsakeran erlijioaren forma (natureleza) eta beronen usadio politikoa. Ditezke eta behar dira (cfr. 1844-eko Eskuidazkiak) Iritzi berdiñekoak dira Lenin-en idazkieri buruz. Erljioarekiko Lenin-en etsaigoa ez omen da printzipio teorikoen ondorenik, aztertzen dituen erlijioaren forma historikoen konsekuentzia soil baizik.

Zer derizkiozu erlijioa herriaren opio dalako esaerari?, galdetu dio norbaitek Passolini-ri. Eta honek: heun urte haundi bere gainean ba dauzkala...

Iusio hutsa zan zientziaren aurrerapenak erlijioa akabatuko zuela, aitortu digu Garaudy-k (zita eta autore gehiago ekar gintezke hemen). Eta A. Schaff polakoak: katolizismoak pertsonari dion estimazioa ikasi beharrean gaude. Garaudy-k ere pertsonaren Trazendentzia argitzen duen teoria marxista bat sortzea premiazkotzat ematen du. Eta Aragon poetak: marxismoa pobre geldituko litzake Jon Gurutzeko, Teresa Avila-ko, San Paulo, etc. beregain hartzen ez baditu... Eta Bloch-ek: ez du inork pertsonaren Trazendentzia erlijioak baiño hobeto salbatu. Gora erlijioa!

Hala idatzi digu, azkenean, Salvatore di Marco-k: erlijioa berez alienazio danik ez da inun ikusten. Eta: "Debbo confessare che la teoria della estraniamento religiosa, quale si ricava dalla filosofia classica del marxismo, mi suscita molte perplessità, in quanto si è rivelata valida solo in determinate condizioni storiche". Erljioa zer dan eta zer ez, esaten digu berak, dana zeharo pentsatu beharrean gaude.

Ohar gisan erantsi dezaiodan orain artekoari, baezpadan, geienok edo agian denok konforme daudela, nahi bada, erlijioa alienazio edo estraiñiazio dala aitortzeko. Estraiñiazio edo arrotz-biurtze, norberagaltze hau, halare, ez da hitz uniboko hemezkerok, arras ekiboko baizik. Nahikoa harritzapen izaten dut, orduan, hamaika jende gure artean alienazioaz, bestelako argitasunik gabe, edozein konturi buruz mintzatzen zaizkigula ikusita.

Señale bat.

Ez dago datuok bere orretako larrugorrian, textuingurutik eta komunismoaren egoera jeneraletik aterata kontsideratzerik. Huisio izango litzake. Eta ez nuke inor engaiñura bildu nahi: joera honetako zitak eta textuak hainbeste inguratu ahal izango genituzke, neke haundirik gabe, joera kontrariokoak ere. Textuok ez dute señale baten balioa baiño gehiago.

Baiña señale batena bai. Señale bat da, baita ere, joera hau batez ere sartaldean agertzea, komunistak agintean EZ dauden herrietan, alegia. Beraz, ilusio banalegirik permititzen ez digun señalea.

Ilitxov-ek ordea... Beste señale bat.

Ilitxov, denok ezaguna dugunez, postura "zaharrear" agertu zitzaigun. Hainbat arrigarriago jokabide hau, haren informea ofizial antxeko zala ukatzerik ez baitago, sartaldearen elkarrizketa giro baten eguerdian eztanda egiten zuen ezkerok. Ilitxov-en informeak IMPASSE desesperatu batean amilduko ginduzela zirudien une batean. Ondoez apartekorik gabe pasatu dala esan diteke gaur.

Sartaldeko komunistek berak egin dioten kritika gogorrek lagun du gaitu batez ere momentu txar hura menderatzen.

Garaudy-k (LE MONDE, 1964 otsailak 22): guk marxista geran aldetik, ezin onar genezake inola ere gure kamarada sobietikoek darabilten (Ilitxov informean agertzen zaigun erako) erlijioarekiko jokabiderik...

Errusia-k erlijioarekiko bere jokaera zuzen dezala eskatzen zuen Lombardo Radice-k, informe berau kritikatu. Ilitxov-en informea Marx-en eta Lenin-en pentsaerarekin konflitoan dagola frogatzen saiatu zitzaigun Lombardo Radice.

Berdin agertzen zitzaigun Luciano Gruppi, Demokrazia Erritarren egiten diran erlijioaren kontrako kanpaiñak kendenatuz (bai teoriaren aldetik eta bai errealismo politikoaren izenean ere).

Gogorrago erasotzen zion Salvatore di Marco-k, informe hau zeharo desautorizatzen zuen artean Errusia-ko "monolitismoaren mitoa" eta "disziplina batasunaren mitoa" akusatzen zituelarik. Hasi bazan hasi, ez zan ixildu Errusia-ko Alderdi komunistaren "estruktura zentralizatu eta burokratikoak" larrutu gabe, "haren logika autoritarioari baitario kondenatu beharreko dan metodo hori". Salvatore di Marco italiar komunisten COMMISSIONE NAZIONALE SCUOLA-ko lagun da.

Lasaiturik hartu zuten orduan arnasa katolikoez... Baiña Iltxo ere seiñale bat da, seiñale triste bat.

Austria-n orain.

Holakoak ikusten ditugu Frantzia-ko, Italia-ko, Alemania Federalesko, Polonia-ko filosofo marxista zenbaitengan. Cuba-n bertan ere (Demokrazia Erritar gazteena) ba dirudi erlijioa, oso libre ez egon arren, Errusia-n eta honen inguruetako Erri Demokrazietan baiño lasaixeago bai ba-dabilela.

Austria-n hasi zaigu oraingoan txalaparta. Ez da ahaztu behar Viena-n irakasten zuela Freud-ek eta onek erlijioaz zioena ez dala Marx-ek hartaz omen zerizkionarekin zeharo konformatzen (omenka jardun beharko dugu, baezpadan, ze nahasi dabil Marx-en interpreta-zioa). Eta Marx ezkerre ere zientziak poxi bat aurreratu digu ba ta. aurrerapen hau ere ez dugu deskontatuko.

Alienazio, estrañiazio da Freud-entzat ere erlijioa, baiña Marx-ek ez halako zentzuean ulertzen du hori Freud-ek. Honen teorian, hain zuzen, gizonen arteko konfliktua ez da inoiz amaituko (Marx-ek seiñalatutako sustraiak ez baiño oso bestelakoak aurkitzen baidizkio honi). Gizonen geurezko izakerak sortzen du konfliktua hau gizartean. Erlijioak estrañiazio izanik ere, salbatu egiten du gizona konfliktua honetan; eta konfliktua honetan gizona erlijioak salbatzen du: antzeko frase bik errealidade diferente bi agertzen baidizkigute. (cfr. Antoine VERGOTE, *psychologie religieuse*, Bruxelles, 1966).

Erlijioa behar du gizonak. Kaxkal xamar esanda (bekigu barkagarri, ez baita gure asmorik Freud aztertzea) gizartearen presioaren aurrez aurre indibiduoak daukan defentsabidea izango litzake erlijioa. Beraz, gizonari gizon izaten laguntzen dio (Freud); Marx-entzat,

ostera, gizon bilakatzea galerazen dio (marxisten adierazpen klasi-kuaren harabera: esan dugu hau guztia koloka dabilkigula gaur).

Hau hola ulerturik esaten zuen duarik gabe Austria-ko Polit-buro-ko filosofo Fischer-ek: erlijioa egun batean akabatzea neure esku balego, ez nuke erlijioa batere nekatuko ez akabatuko...

Enteratu ez diranak,

Eboluzio hontaz enteratu ez diranak asko daude oraindik, nunbait. Esate baterako, komunista espainiol asko eta ENTZUTEN DUDA-NEZ euskaldun ez gutxi.

Kontuz! Erlijioarekiko jokaera aldatzeak ez du signifikatzen inola ere honen analisisia ta analisi metodo nahiz printzipioak aldatu diranik.

Erlijioaren eboluzioa.

XIX-garren gizaldian hildako Jaungoikoa lehendik ere ederki hilda zegoen. Ez zan —hau da katoliko jarraitzen dugunon ustea— Jaungoikoaren irudi motz bat besterik, karikatura bat, monigote bat. Orduan erlijioari egindako kritikak asko lagundu dio Elizari bere aurpegia garbitu ta ezagutu dagian. Gure kritikoez borondate zuzen hala okerra ote zuten galdetzeko ordurik ez baita, eskerrik onena zor diegula dirudit.

Elizaren eta fedearen eboluzioa maixeatzen gelditu gabe, ez nuke esan gabe utzi nahi, ez dugula gure itxura ta kanpoa bakarrik erreformatu behar. Barru barrutik erreformatu beharrean gaude. Marxismoaren kritikak ere ba ditu guretzat makiña bat lezio. Geure fedearen autokritika serio bat hasteko gaude oraindik euskal herrian.

Joanes XXIII hasi zuen berritze lan hau, baiña hasi bakarrik: harek hasitakoa aurrera eramatea guri dagokigu.

Eta bestearena baiño lehenago geure burua erreformatu nahi ez badugu, orduan ezin itxaron gezake besteek gugatik daukaten iritzia me-joratuko dutenik.

Liburu bat.

Errusia'n askatasun osoa garantizatzen du Herrikonstituzioak erli-

jioaren kontra propaganda egiteko. Erljioaren alde, berriz, debekaturik dago nolanhiko propaganda.

M. Mtchedlov, Konzilio garaian Erroma-n egondako korrespondentak, liburu berri bat atera digu orain Errusia-n: **Gaurko katolizismoaren eboluzioa.**

Elizaren gaurko aldakoetaok ez omen dira herriaren kontrario dan ideologia honen (alegia, katolizismoaren) poderioa indartzeko ta segurtatzeko ekilibrio ta maiña baizik. Asmo zatar ta maliobra traketso hoek desmaskaratu egin behar omen dira.

“Betiko ipuiak!”...

Bai, orixe: betiko ipuiak!, esan dute deskonsolaturik austriar komunistak hau ikustean. (**Eta berriz ere seiñale bi!**). Liburu berri honek ez du betiko ipui zaharrak berritu besterik egiten, idatzi du **Volksstime** komunista aldizkariak. Elizaren aldanahiari —jarraitzen du: lan onetan komillak ahorratuko ditugu— bene benetako ta jator derizkiogu guk. Jatortasun berdiña euki behar genuke geuk ere, elkarrizketarako prestu egonik.

Eta berriz ere bi maillatan jartzen digute kritika: **praxiaren** aldetik, ez litzake posible elkarrekintzarik, holako ipuiekin bagabiltza. **Teoriaren** aldetik zerbait astiroago landatu nahi nituzke austriarren iritziak, ze gure artean ere ikusten baidugu praxiaren aldetik komunistak aldatu dirana, ez dugu ikusten, ordea, planteamentu teoriko sakonik. Eta lan honetan ni batez ere filosofo marxistekin enpeñatu naizelako ere bai.

Ateismoa ta Marxismoa.

...bi gauza oso diferente dira. Edo, izan behar lukete. Josef Hindel komunistak agertu digunez (maiatzean zan) marxismoari ez zaio ateismoa osaki beharrezkorik batere, ateismoa ez da marxismoaren atal integratzaille.

Marx atea zala ta marxismoak ere atea izan behar duela pentsatzen dute batzuek, diosku Hindel jaunak.

Marxismoa gizartearen jakintza lez ulertzen bada, ordea, —harek oraindik— agiri ikusten da pentsakera marxistaren kolkoan ateismoa

zerbait saietseko dala, bigarren planoko ta denporan mugatu, ez inola ere haren mamiko.

Salvatore di Marco ta italiarren bidean sartu zaigu Hindel planteamentu honekin. Salvatore di Marco-k dionez jakintza ta erlijioa elkarren aurrez aurre kontrajartzeak Logika formalaren kontra hutsegiten digu. Eta honatx nola argitzen digun Hindel-ek hutsegite hau.

Marxismoak ez dakiana.

Erljioa berez zer danari buruz afirmazio absolutu jeneralak ezartzen dituen filosofo marxistak bere buruaren kontra jotatzen du, bere metodoaren neurrien gainetik esajeratzen du: metodo dialektiko marxistak, izan ere, ez da holakorik permititzen.

Honela oiñarritzen dizkigu Josef Hindel-ek bereak diran goiko hitzok: marxismoak errealdade konkretoa, ezagutzen dugun koadro ta situazio konkretoetan azter ditzake. Berdin erlijioaz diarduelarik ere. Gizartean nola ta zein parte jokatu digun azter dezaiguke, baiña ez nola jokatuko duen, ezta derrigor hola eta ez bestela joka ahal dezakeanik ere. Erljioa herriaren opio dala esateak ez du esan nahi beti eta derrigor, berez, opio danik, historian horixe izan dala baiño. Gehiagorik ez. Erljioaren mamiaz, berezko zertasunaz, ez dakigu ezer.

Marxismoaren ez jakite honek —eran'siko diot nik— ba du beste iturbururik: pertsona zer dan argitu gabe dago marxismoa. Baiña pertsonalismoari buruz literatura ugaria dagoenaz gainera erabillia baitut puntu hau beste nunbait, aipatze labur honekin kontentatuko gera hemen.

Jaungoikoa ta marxistak.

Ba al dago Jaungoikorik? —itaundu zaio Hindel-i. Eta honek erantzun: marxistak ezin eman dezaioke galdera horri erantzun pertsonala besterik. Gizarte jakintza batek ezin erantzun dio itaun metafisiko bati, matematikak edo medizinak egin dezaketena baiño hobeto.

Erantzun pertsonala bakarrik eman daike marxistak. Marxista ez ateo bat gauza guttiz ederki pentsa leikeana da beti Hindel-en hitzak aldatuz.

“...El obrero comunista consecuente en los principios es ateo”, idatzi digu, hala ta guttiz ere, komunista euskaldun batek.

Komunista euskaldunek langilleendako filosofia diferenteren bat ez badaukate...

Prolemaren zatiak.

Marxismoaren eta erlijioaren arteko auziak alderdi asko ditu, noski. Filosofo marxista denak iritzi berdinekoak ez ditugula ahaztu gabe, ez dira gauza bera filosofiagintza ta politikagintza. Gogoan eustekoa da hori.

Praxiaren aldetik komunismoari elkarrekintza nahi badu erlijioarekiko biguntasuna, tolerantzia egiazkoa eskatzen ote zaion hala ez, puntu bat da. Teoriaren aldetik materialismo dialektikoak Jaungoikoaren izanaz edo ez izanaz ezer erabaki ote dezakean, beste puntu bat oraindik.

Irugarren mailla interesante bat ere honezkero iritxia digu elkarriketak: erlijioarena berarena. Jaungoikoa, izan ere, erlijioaren objeto da, ez erlijioa bera. Erlijioa gizonengan agiri dan fenomeno bat dala garbi baitago, erlijioaren fenomenologian ere analisiak eta elkarriketak jarri beharrean gaude. Alegia, erlijioa benetan estraiñazio edo arrotzbiurtze ote dan (eta zein zentzunetan) argitu beharrean. Salvatore di Marco marxistak ezetz uste du.

Mundua ulertzeko ta sentitzeko era asko dira posible ta bat erlijiosoa izan liteke. Azkeneko hau benetan ikuspegi berez ona dala onartu ezker, aldiz, (ikuspegi oro ditugu akasdun eta neurridun) aukera libre pertsonal batek erabaki dezake bakarrik ikuspegi erlijiosoa hala atea izango duen bakoitzak. Horretatik ateratzen digu Salvatore di Marco-k, marxismoak, ateo gelditurik ere, aitor deza keala, Marx-en tesiak sakonagotuz, erlijioa ez dala alienazio.

Ateismoaren agerpen bikoitza.

Erlijio forma asko daude, baita ateismo forma bat baiño gehiago ere. Eta katolizismo forma asko bezalaxe ateismo era asko marxisten artean.

"Ikazkiñaren ateismoa" esango al diogu batari? Operazio labanaren puntarekin arimarik billatu ez zuela-ta arimarik batere ez dagoela demostratu uste zuenaren fedea... (Jaungoiko fisikoren bat asmatu nahi zigun Bichat midikuak!). Baiña umekeria horretxen bidetik

agertu zitzaigun Titov astronauta, bere meritoek inola autorizatzen ez zioten gai batean eskua ez baifio anka sartuz: "Jaungoikoarentzat ez zeruetan ez lurretan lekurik ez dagon segurtasun osoa irabazten da". Ez digu esan hor goietako izarretan galduta zebilken Platon-en ideiaren bat erretratatu al zuen.

Ez pentsa, jende serio askoak ere egin izan dizkigu nohizpait holakoxe graziak. Krutxof zan aitona on harek, esate baterako: "Bibliako ipui batean kontatzen zaigunez Jaungoikoak mana bialdu zuen zerutik gizon guztieri jaten emateko... Terexkova astronauta bialdu genuen guk zerura ta esan diogu: zoaz ba egatan eta begira zazu ia manarik badagon... Baldin badago, batu pixka bat eta preparatu bazkaritxo bat. —Joan da ba Valia, ta begira hara ta begira honera, ezin inungo baztarretan halakorik topatu... Dagoeneko ezin itxaron dezakegu zerutik manarik etorriko zaigunik" (Ungaria-ko kimikakombinadu behargifneri, cfr. **Volksarmee**, Berlin-Ost, 1964, zenb. 4). ,

Teologoan gaurko alegifnak txalotu ondoren, debozionarioen "beste erlijio klasea" lamentatzen zuen Garaudy-k. Arrazoirik ez zaio falta, noski. Baifia debozionarioko ateismo hau ere ba da zerbait, hamar aldiz noski!

Besteak beste, guztiok daukagu, agi danean, zer jorratu franko norberaren baratzan...

Xinplekeriazko ateismo honekin batera ba dugu marxisten artean beste ateismo serio bat ere. Izenak millaka ekarri ahal izango baigenituzke eta izenik aurreratu beharrik ere ez baitugu hori jakiteko, horretan utziko dugu puntu hau. Ez esan gabe, edozein gizonen duela eskubide aukera serio ta libre batean norberaren konzientziari, ateismora badarama ere, jarraitzeko.

Eta gu, katolikuok, eskubide hau ametitzen eta defenditzen dugun ezkerero, nunahiko gizartetan errealdade biur dedin lanegitera obligatuak gaude.

Katolikoak, jakintza eta erlijioa.

Hona hemen komunista zenbaiten artean noiz edo noiz oraindik kantatu nahi izaten duen beste kuku bat. Jakintzaren aurrerapenak erlijioa birrinduko duela pentsatzen duen marxistarik ere ez da falta ba. Hortaz ere ez du merezi hemen eztabaida jartzetik.

(Marka da, gero: oso aspaldiko ez dan antxifia batean aldrebeseko lanean saiatu zitzaizkigun halako teismoaren apologeta batzuek. Ale-

gia, jakintzak Jaungoikoaren izana frogatzen duela. Desertatu egin digu nunbait zientziak... e!a etsaiarengana pasa!).

Hau erantzun zuen Dominique Dubarle-k halakoen kontra: zientziaren materialismoa oso osorik profesatzen dut halare nire adimenak ez du bātere atsekaberik fededun jarraitzeko. Gure ustean, izan ere, fedearen eta aurrerapenaren artean bezalaxe xehetu da zientziaren eta fedearen arteko konfliktua.

Zientifiko katolikoak zeharo bidezko aurkitzen du estruktura-gaiñari azalpenak eta argitasunak estruktura-pean billatzea eta egin ere egin behar du hori. Gutxi asko, beti edo ia beti egin dala ere esango nuke: kristautasunaren zabalkunde harrigarri azkarrari, luteranismoaren agerpenari, beti billatu zaizkio sustrai ekonomiko, politiko, zozio-logiko ta abar milla. Pelagianismoari moje baten galantean eta jangarrean aurkitu dizkio norbaitek erroak. Eta moja baten siko-logian —edo beheaxeago!— historia asko ulertu uste izan da. Berdin berdin aurki genezaizkioke sustraiak estruktura-pean Konzilioari eta agian ez lirake desestalinizazioaren sustraietatik oso urrun ibilliko...

Estruktura-pearen sustrai horiek zehar, horiek barna, horiek aurrera ta horietxekin batera ikusten ditugu guk ere “naturaz gaindiko” esan oi ditugun fenomenoak, ez horiekin zer ikusirik gabe, hare gutxiago horien kontra. Naturaleza ta grazia ez dira eskillara ta bāranda bezala.

Katolikoak ezin jakintzaren emariak uka ditzake, errebelazioaren edo fedearen izeneko aitazakitatik. Iñoiz zientziak erlijioaren banaltasunik ziur frogatuko baligu, pentsa dezakete komunistek ere hau, egun horretantxe egingo digu porrot fedeak. Eta kezkarik bātere gabe biurtuko gera denok ateo, egiak esperantza benetan ito badu ez gera ilusio hutsean zintzilika geldituko-ta.

Honek ez du ukatzen munduaren ikuskera zientifikoa aspaldiko munduaren ikuspegi erlijiosoari lur jaten ari zaiona. Hori ere errealdade bat dugu. Errealdade, baiña prolema zearo diferente. Ze, jakintza ta erlijioa (filosofia ta artea berdin) mitoarekin nahastuta heldu zaizkigu joanalditik gurera, baiña zientziak erlijioak ez bezalako abiadarekin aizatu ditu mitologietako auts guztiak bere jantzetatik. Errezago ere ba zuen-eta. Bestelako arrazoirik ere ez da falta (erlijioak zientziak ez bezalako esijentzia moralak ditu, etc.), diferentea da, beraz, prolema.

Ez ditut hemen puntu honi buruz atzera berrituko zenbait marxistak ikusi ta aitortu duena, jakintzaren eta erlijioaren artean konfliktorik ez dagoela finkatzeko.

Euskaldun komunisten batzuek baiezkotan enpeñatzen zaizkigu, halare, oraindik.

Kaiserrari berea.

Eztabaida nahiz elkarrizketa teorikoak alde batera, elkarrekin-tzarako (katolikoekin) asmoak ere ba dira komunisten artean. Euskaldun komunistak barna, hemen ere. Elkarrekintza hau posible dala, teoria soillean, ez dago dudatzerik. (Horren inguruan egin beharko lirakean oharrak beste baterako utziko ditugu). Bakoitza bere ideologiaren gazteluan geldituz burutzen badira elkarrekintzaok, duda gutxiago oraindik.

Planta horretan jarri izan da prolema hau, gehienetan. Ez ote dago aurrerago eramaterik? Alegia, esan nahi dut, gaur arte **egiteko** batean bat izatea izan da elkarrekintza nahi zutenen asmoa. **Motigoe-tan** elkartzerik, bategiterik ez du inork asko saiatu eta komunistekin elkarrekinzale amorratuena ere beti eutsi diote beren motigazio erlijiosoari, askotan mistiko xamarra, arras gauza bitxiak gertatzen baitira noiz ala noiz progresisten artean ere. Holako zerbait ikusi izan dugu Frantzia-n eta ez da noski besterik Cuba-ko zenbaiten jo-kaeraz entzuten ditugunak sortzen ditugun idurituia.

Halabaitan, marxismoaren ekintzarako motigazioak jakintzak sostengatzen baditu bidezko izan behar luke motigo horietzek gureak ere izatea...

Korapillo honek azterketa berezia mereziko bailuke, ezin honetan ere geldi gintezke (prolemaon azterketak ez luke inola ere bat bakar-rraren egiteko izan behar). Erlijioaren eta marxismoaren arteko sintesi bat ez da inola posible, esan du Josef Hindel-ek interbixta batean. Zozialista fededunek egindako saioek, dala marxismoaren helburueri motigazio kristauak emateko, dala ere klasegabeko gizartea Jaungoikoaren Erreinuarekin berdintzeko, marxismoaren jite edo karaktero zientifiko hutsa kontraesaten dute.

Honela moduzko huts batean erori zaigula euskaldun apaizen bat (Ignacio Muruzabal) ere uste dut: bai baitirudi mogimendu komunistaren beleroa aize katolikoz puztu nahi lukeala.

Kiliasmoa ta katolikuon utopia.

Kristianismoa utopia da, utopia gaur askok adierazi nahi duten bidetik uleritzen bada behiñepein. Beste kontu bat da milenarismoarekin. Hori argitzeko aski da hiztegi teologiko edo bibliko bati begiratu bat, ez dugu hori azaldu beharrik hemen.

Arrigarri aurkitu dugu, ba, euskaldun komunistaren batek egin digun alderatze hau: komunismoa ta kristianismoa, dionez, biak oinperatuen, azpikoen, morroien pentsakera izango lirake jatorriz. Baiña ZOZIALISMO ZIENTIFIKOAK ez bezala, milenarismoarekin (kiliasmoarekin) etsi omen zuen kristianismoak, gizonon askapena —dionez— beste mundura atzeratuz.

Afirmazio au oso polita izango litzake, pekatu kokkor bi ez baleuzka.

Lagun onek ez daki nunbait kiliasmoa zer dan, aurrenik. Izan ere, kiliasmoak ez dauka beste munduarekin, heriotz ondorengo bizitzarekin, batere zer ikusirik, eta askoz gutxiago oraïndik menperatuen etsipenarekin. ("El cristianismo primitivo transportaba esta liberación al más allá, a la vida ultraterrena, en la espera de un **milenium** próximo", eta "...esperanza quiliástica de alcanzar la felicidad eterna en el otro mundo"). Kiliasmorena ta heriotz-ondorengoarena itxaropen diferenteak dira.

Bigarren: kiliasmoa kristautasunaren barnean aurkitu bai aurkitzen dugula onarturik ere (baiña handik kanpora ere bai), itxaropen kiliasmikoa kristianismo osoari zabaltzea kondaira zilipurdika erabiltzea da. Iturburuak kristianismoan ez dituelako (gaizki xamar informatuta dauden kondaira idazleren batzuek bakarrik idazten dute honezkeru Apokalipsia-ren 20 garren kapituluak sortu zuela kiliasmoa. Kapitulu hau kiliasmen argumentu bilakatu zan noski, baiña askoz lehenagotik zetorren kiliasmoa, kapitulu honen beharrik gabe: kristianismoaren barnera sartu zanean kapitulu hontaz baliatu nahi izan zuen), kristau herrian zabalkunde apartekorik ezagutu ere ez zuelako —herri gidatzaileen artean, behiñepein— eta zabaldu zana bera batez ere herejeen artean, alegia, zerintotar, ebionita, nazaretar, montanista, etc. Hain gogor kiliasmoaren kontra jokatu zuen Origenes bat,

edo ta Dionisio Alexandriako, Basilio, Gregorio Nazianzoko, Jeronimo, Augustin ez ziran kristau izango seguru asko... Horiek ez, Montano ta abar ziran solo kristau.

Mesede kaxkarra egin dio oraingoan Engels-ek gure lagunari. Zer egingo da, Engels-ek ez zeukan zergatik ezagutu gerora kondaira billatzailleek aurkituko ta argituko zigutena.

Zer esango ote liguke gure adiskideak, kristianismoak hainbeste zerikusi ta zor dituela gutxienez kiliasmoarekin zozialismo zientifikoak osteratzen badiogu? Ez naiz txantxetan ari.

Utopiaren atzoko destaiña gaur estimazio biurtu zaigu. Jakintzaren eta mitoen arteko artuemanen azterketak, beraz, jakintzaren eta pentsakera zientifikoaren sorterroen analisiak hamaika ustegabeko aurkeztu dizkigu. Denporak aldatzen doaz... Errealismo ta planifikazio zientifikoaren usteez goitik behera begiratzen zioten lehenago utopiari. Zer pasa da, ordea, bitartean? Futurologia ta kibernetika ta holakoxe erramintak asmatu dizkigute. Ustegabeko pitxiak argitu dizkigu bapatean Aladino-ren krisaillu sekulako harek, atzo arte erdefiatu genituen zokondo haietantxe, halajaiñetan. Eta jakifia, betikoa, denak berentzat nahi orain pitxiok. (Urte batzuen buruan utopia falta akusatuko diote erlijioari. itxaron apur bat...). Jakintzaren ideal sortzaille ta argiemaille ta biderakusle ta holakoxe bilakatu zaigu orain utopia, gabetik goizera. Utopiak jakintzari ematen dizkion absolututasun dimensioak, azkengabea irixteko grifia, planifikatzen jakiteko **tipoak, ereduak** (ereduaren sikologia bat ere muntatu da, zozologia atzetik dabilkio, eta marxismoaren azalpen metodoek —Errusia-n bertan ere— kapitulu berri bat sartu digute) nik dakit zer. Seiñorita biurtu zaigu oraingo ferian utopia! Gutxi balitz oraindik, utopia Europa-ren gaitz tipikoa omen da, zientziari eragin diona, teknika pizkortu duena, etc. eta milla etc. Oi ba, atzeratu xamar irixten gera gu beti!

Beno ba, Erdi aroko utopia zozialak aztertu dizkigu Bloch marxistak (ain zuzen kiliasmoa tartean dabil: Joakin Fioreko ta abar) eta hoetxen tradizioan txertatu digu Marx. Laguntasun polita. Bronislaw Baczko-k "tono profetiko ta kiliastiko" zoragarri bat aurkitu dio orain Marx-en alienazio teoriari, eta A. Schaff-ek begi atsegifnez agurtu du aurkimendu hau. Marx-en gizon "zearo liberatuaren" gizarte alienazio orotatik garbituak ez baitu zientzia esperimentalarekin batera zerikusirik, utopiak eskeintzen dizkiguten tipo edo eruedetatik azaltzen digute hori guztia orain. Holaxe: Marx-ek utopia bat amesegin zuen, eta ames horretan **eredu** bat idoro. Utopia hori da, berez

esperimentaeziña izan arren, gaurko planifikazioen eta humanismoaren eredu eta tipo. "Marx-ek iragarritako giza tipoa, eredu ezin sekula eskuratzekoa da... baiña hartarako saiatu bai egin leike ta egin behar da" (A. Schaff).

Gauzak **zozialismo zientifikoari** dagokionez ondo oiñarritzeko, Marx-en konzientziapea ere aztertu digute ba: Marx-en judegutasu-nean eta judegu herriaren eskatologia ta milenio itxaropenetan (hara nundik! demontre...) aurkitu nahi dizkigute orain iturburu sikologikoak... Horixe bakarrik, behar genuena: alegia, judegu herriaren konzientziapeko utopia milenaristak eta eskatologikoak (baiña batzuek eta besteak bereiziz, mesedez) errealdade konkretora ekarriz idoro omen zuen langille klasearen eginkizun eta misio historikoa, eta noizpaiteko gizarte klasegabekoan proiektatu hau guztia. "Praxi filosofia honen (alegia, marxismoaren) apartekotasuna, ain zuzen, jakintzaren ta utopiaren bategintza da", akklarutzen digu orduan Ernst Fischer-ek. Ez al da polita?

Horrelakoxe zerbait (utopiaren estimazioa) adierazten omen dute Marx-en ideiak agertzeko Mao Tse-tung-ek erabillitako hitzek berek. Txineraren hitz faltan, K'ang Yu-wei utopistaren irudi ta hitzak bereganatu dizkigu Mao-k.

Izan ere, jakintza (edo errealdismoa) beste gabe utopiarri kontrajartzea pasatuxea dago. Baiña nork ulertzen du karnabal hau: haundia da, (mini-haundi bakarrik, ez baita hain harrigarri) batzuek kristianismoari salatzen dioten huraxe goratzen diotela bestek. Eta denak komunista dira, diotenez.

Aspaldi ahaztuta egin behar lukean burubidea ikusten bada gure artean, hori ere seiñalaren bat izango da.

Nire gogorkeriak.

Gogorregi omen naiz marxismoarekin, katoliko "eskandalizatu" batek idazten didanez. Aitzaki huts izan omen dut elkarrizketa, kruzado baten itxura arturik erasotzeko.

Ohar bat nahi nuke honen inguruan jarri (eta barka bekit irakurleak).

Akusazioa egiten danean, ahal dala behiñepein frogatu ere

egin behar da. Ez ziraunaren jokorik. Inpresio hutsa bada ta iruditua (askotan nahasten baiditugu iritziak eta iritziaurreak, arrazoiaren ondokoak eta aurrekoak), ez diot nik akusazioari baliorik ukatuko. Inpresioaren balioa, noski, ez gehiago. Baiña, mesedez, zer da gogor, esandako hitzak hala gauzak?

Elkarrizketari ekitekoan elkarrizketa utilla nahiko dugu, agian, ez sutilla.

Eta neure burua anparatzeko, hona hemen hitzok: fededuneri beren erlijio askatasuna ukatzen diena diktaduraren eta terrorismoaren laprasturian dago. Eskoba latza irudituko zaio hau ere, agian, nire lagunari: marxista batena da, Josef Hindel.

“Marxismoaren jarraitzaileak hala kontra-jarraitzaileak, Marxismoak egiten duen erlijio-kritikaz jarduterakoan, interpretazio faltsoan hain maiz erortzea, usu, erlijio-kritika honen era desberdiñak ez berezi ta zehazteari zor diote” (I. Fetcher).

ANDIMA IBINAGABEITIA

Berriz ere hil-kanpaiak illundu digu Euskal Herria. Atzo-edo, Salvatore Mitxelena zen. Ta gaur Andima. Oraingoan Ameriketatik etorri zaigun aize-boladak notizi benetan penagarria ekarri digu.

Nork daki Euskal Herria'k eta Euskerak zenbat zor dioten Andima-ri- Eskertu ezin haiña eskierki. Gizona oso-osorik, gorputz ta anima, gure herriari ta hizkuntzari itsasia, katigatua bizi izan zen. Bere maite, bere aragi zituen biak. Idatzi liburuak, euskal aldizkarietan argitaraturiko hamaika idaz-lan, irratietan eman ohi zituen saioak, hitzaldiak, Caracas'ko ikastolan erein ta zabaldu zituen hitz eta erakutsiak, eta... Edozertarako gertu zegoen egon Andima. Martin Ugalde'k hitz-bitu digu Andima'ren bizitza: "Euskerari eskeiñi zion erbesteratua ta mindua zeukan soiña, iñola ere erbesteratu al izan ez zioten bere gogo argi ta pizkor ura". Horixe zen Andima.

Ta orain galdetu: Nork daki Euskal Herria'k eta Euskerak zenbat eta zenbat zor dioten Andima'ri? Batzuk ba dakigu JAKIN aldizkari honek ere zenbateraiñoko zorrak dituen berarekin. Ez du ahaztu JAKIN'ek, bere jaiotzean neke ta ahalegin bizian ibilli zebillela, Andima'ren bihotz zabaletik xurruptatu zituen arnasa ta kemena. Geroan ere, Andima beti izan izandu zaigu JAKIN'en xuxperlari ta bizigarri.

Ta Andima hil egin da. Baiña, hala ere, Andima bizirik dago. Andima joan zaigu. Baiña bere arnasa ta izpiritua gurekin gelditu zaizkigu. Hemen gelditu zaigu bere euskera ere, bihotz-bihotzetik urtetzen zitzaion euskera batua. Bera, guri dena utzita, huts-hutsik joan da. Halako gogo ta maitasunez erein zuen azia egunen batean bizi-indarrez erneko da ta kimu loratsuak emanen ditu.

Euskal Herria, Euskera eta JAKIN'en izenean: Eskerrik asko, Andima. Eskerrik asko eta agur.

JAKIN taldea.